

Euskal Herriko prentsa

XVIII. mendetik 1945era



EUSKARA
MINTZAGAI

3



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

EUSKARA MINTZAGAI bildumak gure hizkuntzaren sustrai, enbor, adar eta fruituak ondo asko aztertu nahi ditu eta euskaltzale guztiei ikerlan monografikoetan eskaini. Milaka urte dituen mintzaira honen jatorria, bilakaera, osagaiak, kanpora eta barrura izandako harremanak, euskal jendeak sortutako kultur adierazpideak... Halakoak eta beste gertutik eta modu arin batean ezagutzeko prest dagoen horrek badu zer irakurri, zer ikasi. Aldian-aldean **HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK** argitara emango dituen liburuxka hauek gure hizkuntza, gure herria, geure burua hobeto ezagutzeko aukera emango digute.

“Kazetaritzak hizkuntzaren beharra dauka, hori du-eta tresna. Hizkuntzak kazetaritzari zabalkundea zor dio. Euskarazko kazetaritzaren bide-egileei esker, gure aurrekoen gertuko historia ezagut dezakegu. Erdarazko aldizkariak euskarari mesede egiten ez ziotelakoan, erdaraz ikasitako lagunek euskarazko kazetari moduan jardun zuten, euskal irakurleak sortzeko. Haiek gaur egungo Euskal Herria egingarri bihurtu zuten. Horretarako giltza nagusia herritarren topatu zuten: munduari euskaraz begiratu nahi zioten irakurleen babesak”.



Euskal Herriko prentsa:
XVIII. mendetik 1945era



Maria González Gorosarri

Kazetaritzan doktoregaia, Eusko Jaurlaritzaren Ikertzaileak prestatzeko bekaren onuraduna



Euskal Herriko prentsa: XVIII. mendetik 1945era



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaularitzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia / Edición	1.a, 2008ko abendua / 1. ^a , diciembre de 2008
Ale kopurua / Tirada	1.500 ale / 1.500 ejemplares
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco Kultura Saila / Departamento de Cultura
Diseinua eta azala	Antton Olariaga
Maketazioa	Junkal Motxaile
Argitaratzailea	Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet	www.euskadi.net
Inprimaketa / Imprime	Gráficas Santamaría, S.A.
ISBN	978-84-457-2844-4
Lege gordailua / Depósito legal	VI-575/08

Euskararen normalizazioak aurrerakada handia eman du azken 25 urte hauetan. Denon ahaleginari esker, garai bateko amets asko egia bihurtu ditugu. Itzela da egindakoa, baina handiagoa egiteke duguna.

Esparru ugaritan eman ditugu urrats sendoak, esparru formaletan bereziki, esparru ez-formaletan gorabeherekin. Urrats sendoak euskarazko hedabideen alorrean ere, hizkuntza baten normalizazioan hedabideek ezinbesteko papera jokatzen baitute.

Honelaxe ulertu dugu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan, eta honexegatik, hain zuzen, abian jarritako zenbait ekimen: % 47ko igoera euskarazko hedabideak sustatzeko diru-laguntza zuzenetan, hedabideen hobekuntzarako deialdiak, euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzeko sentiberatzea, Ukan berrikuntza eta publizitate sariak, euskarazko hedabideei buruz hainbat ikerketa..., eta bereziki Euskararen Aholku Batzordearen baitan euskarazko hedabideen inguruan hausnarketa egin asmoz sorturiko berriarazko batzorde-atala, jadanik lanean diharduena.

Hauxe oraina, hauxe etorkizunari begirako gogoeta. Baina eskuartean duzun liburuak ondo baino hobeto azaltzen duenez, geroak badu iragana, bai eta euskarazko prentsaren alorrean ere: XVIII. Mendetik –Iparralde aitzindari-, euskarazko lurralde guztietara

hedatua –baita diasporan ere-, aldian aldiko gizartearen isla izanik.

Zein izan zen euskarazko prentsak eman zuen lehenengo berria? Zenbat aldizkarik, zenbat egunkarik ekin diote euskaraz argitaratzeari gure hizkuntzaren idatzizko historian? Badakizu Iparraldeak zer-nolako garrantzia izan duen euskarazko prentsaren bilakaeran? Eta Kalifornian ere euskal prentsak lekua izan zuela? Zein esparru bete ditu kazetaritzak? Nolakoak ziren euskal prentsaren irakurleak? Nolako erabilitako erregistroa, kontuan izanik euskara batuak duen abiapuntu hurbila (1968)? Nork eta zerk bultzatuta ikusi zuten argia euskal medioek?

Itaun horiei erantzuna emango die eskuan duzun testuak, Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik Maria González Gorosarrik idatzitako liburuak. Gainera jakizu, irakurle, eduki hauek eta bestelako batzuk ere www.euskara.euskadi.net-en dituzula noiznahi kontsultatzeko moduan.

Geroak badu iragana, bai. Euskara hizkuntza moduan finkatu eta arautu aurretik, hizkuntza politika izan aurretik, izan zen euskara eta hedabideen arteko uztartekarik, izan zen bidegilerik, izan zen irakurlerik. Badugu iragana, badugu geroa.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	11
Euskaldunon albiste-historia	12
Handik hona	35
<i>Bibliografia</i>	36
<i>Eranskina: 1940ra arteko euskarazko prentsaren zerrenda</i>	39
<i>Ilustrazioen iturriak</i>	44



HITZAURREA



Euskarazko prentsaren ibilbide luzean murgiltzeko hiru egileren lanek norabidea zehaztu digute. Lehenengo eta behin, Javier Díaz Nociren ekarpena guztiz eskuzabala izan da. *Berripaperak* bere liburuak hurrengo lan honetan azaltzen diren euskarazko prentsan azaldutako hainbat aipu jaso ez ezik, bibliografia osatzeko ere bere laguntza guztiz beharrezkoa izan zaigu. Bigarrenik, Aitor Zuberogoitiari laguntza ere eskertu nahiko genioke. Azkenik, kazetaritza ikasleen grina kazetari sen bilakatzen duen Txema Ramirez de la Piscina irakaslearen liburua euskarazko prentsaren zerrenda osatzeko baliabide lagungarri eta gogoko izan dugu.

Bestetik, aldizkarien irudiak Ander Alonsok bildu ditu. *Eskualduna* astekariaren nazien aipuak eta irudiak, aldiz, Mikel Elorzak ekarri ditu.

EUSKALDUNON ALBISTE-HISTORIA

Euskarak euskaldun egin gintuen. Euskaraz gure gorabeheren berri emateak herri bihurtu gintuen. Momentuko gertakizunak, denborarekin, historia bihurtzen dira. Batzuetan, gainera, historiari protagonismoa irabazi eta titulu, argazki edo marrazki batekin garai jakin bat ilustratzen da. Horrela, kazetaritzak ere historia egiten du. Gure aldizkariaren izenak historian txertatu ziren eta, bide batez, egungo hedabideentzako bidea hasi zuten.

Euskal hiztunok hizkuntzatik sortutako albiste propioak ezagutzeko beharrezana sentitzen dugu, definitzen gaituenaren norabidea jakin nahi dugu. Ezinegon komunak partekatzen ditugu eta, horregatik, bizi-proiektu bera aurrera ateratzeko lanean gabiltza: herria. Kazetari eta irakurleak lan horren zati dira. Horrela ulertu zuten orain bi mendeko euskaldunek eta, haiek orduan egindako lanari esker, “izan zirelako gara” esan dezakegu. Ikus dezagun nolakoa zen orduko euskaldunen herria, ezagut dezagun euskaldunon albiste-historia.

Euskal Herria bere inguruko herriak baino geroxeago sartu zen kazetaritzaren munduan. Euskaraz emandako lehen albistea 1766koa da. Frantziako Errege Luis XVI.aren aitaren heriotzaren berri emateko, frantsesez idatzitako bederatzi orriko itzulpena da. Honela zuen euskarazko titulua: **“Jaun Dauphin cenaren eritassuneco circunstancia berecien errelacionea, haren coffesorac arguitarat emana”**. Baionan argitaratuta, lapurteraz idatzita, Iparraldeko euskaldunek Frantziako erregearen aitaren azken egunak

nolakoak izan ziren jakin ahal izan zuten. Orduan ez zegoen euskara idazteko araurik, jakina. Horregatik, ezina ekinez egina pentsatuko zuketena, eta euskaldunon hizkuntza kazetaritzara gerturatzeko ahaleginek denborarekin hizkera berezia sortzeko lehen urratsa eman zuten. Orduko euskarak idazteko araurik finkatuta izan ez arren, bere helburua bete zuen. Errelazioak noizbehinka argitaratutako orriskak batzuk ziren eta euskaraz kaleratutako lehen honek ere bere eginkizuna bete zuen. Horrela, Ipar Euskal Herriko euskaldunek Frantziako Erregearen heriotzaren *circonstancia* haiek ezagutu zituzten:

“Ene desseinua ez da, agueri den beçala, Juan Dauphinaren historia iscribatcea [...]. Contentatuc-naiz explicatceaz, manera simple eta lano batean, haren azquen circonstantia bereciac [...].

Abendoaren hamabortcetec hamaseiraco gaüa hainitz içan-cen tcharra. Printceac erakharri-ninduen goiceco sie orenetan, eta nahi-içan-çuen iaquin ene ganic cer cioten haren estatuaz.”



Frantziako Errege Luis XVI.a

Luis XVI.a Frantziak izandako azken erregea izan zen. Ondoren, 1789ko Iraultzak Frantziako Errepublikak ezarri zuen. Iraultzak politika aditzeko beste aukera bat zabaldu zuen: Konstituzioan oinarritutako legeak eta Gizakiaren Oinarritzko Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapena. Euskaldunontzat, hala ere, XIX. mendean bereziki latza izan zen. Napoleon Bonaparte 1804. urtean Enperadore izendatu eta gero, Espainia inbaditu eta bi herrien arteko gerra Euskal Herrian ere gauzatu zen. Esaterako, Donostiak 1813ko abuztuaren 31n su hartu zuen.

Napoleonen aurkako guda garaitu izanak Espainian Fernando VII. Erregeari boterea eman zion. Hura hiltzean, haren ondorengoa nork izan behar zuen erabakitzeko, beste guda bat ekarri zuen. Hego Euskal Herrian bereziki bortitza izan zen. Alde batetik, karlistak zeuden, Karlosen aldekoak: Euskal Herriko foruak eta Jaungoikoa defendatzen zituenak, antzinako erregimena, hain zuten. Bestetik, liberalak zeuden, Isabel Erreginatzat hartzen zutenak eta Frantziako 1789ko Iraultzaren printzipioengatik borrokatzen zirenak: askatasuna, anaitasuna eta berdintasuna (orduan gizon dirudun batzuek bakarrik botoa eman ahal zuten, gogoratu).

Hego Euskal Herriko herri xehearen hizkuntza euskara zen. Horregatik, XIX. mendeko karlistek eta liberelek, biek ala biek, herriaren babesa berenganatu nahi zuten. Horretarako, herriari bere hizkuntzan berba egin behar izaten zioten. Karlistek elizako pulpituak erabiltzen zuten moduan, liberelek euren ideiak zabaltzeko aldizkaririk argitaratu nahi izan zuten. Euskarazko argitalpena kaleratzeko Espainiako Isabel II. Erreginaren baimena eduki arren, erdarazko aldizkaria plazaratu zuten

1834an: *El Correo del Norte*. Zergatik? Horra hor euskaldunon aspaldiko eztabaida. Euskaraz ala erdaraz? Euskaldunontzat ala erdaldunontzat? Euskaldunok erdaraz badakigu, euskaldun ala erdaldunak gara? Idaztean hizkuntza horren etorkizuna bermatzen ari gara. Orduan, zer garen baino, zer izan nahi dugun pentsatu behar dugu. Horregatik, XIX. mendean kazeta erdalduna kaleratu zutenak euskaldunak ziren, jakina, eta, horregatik, euskaldunei zuzendutako mezuak euskaraz idazten zituzten, gipuzkeraz honakoa:

“Erritar maiteak, zuben biziya eta zubez dezuten guzia galdutza zuazte, ez sinistu esan disquitzuten gaucic.”

(El Correo del Norte, 1834ko maiatzak 5, Doako gehigarria)

Hortaz, euskara hutsezko lehen aldizkaria Iparraldean plazaratu zuen Agosti Xahok, 1848an: *Uscal Herrico Gasetak*. Zergatik euskaraz? Zergatik izen hori? Irakur dezagun bere azalpena:

“Gasetak hounen hastiarequi, ezta tchipi içan goure embrassia, eia çouin herri edo probincitaco Uscaraz, Escaraz, Eusqueraz edo Hescuaraz haïtu eguin behargunian izquiribatceco. hasteco, cer icen emanen dugu egun finitcen-den hilabeteari: Arramaïatça, Ekhaiña, Errearoa?”

(Uscal Herrico Gasetak, 1848ko ekainak 30, 2. or.)





Euskarazko aldizkari bat aurrera ateratzeak, baina, euskararen orduko egoeraz jabetzera eraman zuen. Horregatik, euskara batuaren beharrezana jasota utzi zuen, euskaldun guztiek ulertuko zuten hizkuntza bateratua. Bitartean, hona hemen bere proposamena:

“Hobe liçate guisa-batez gouretaco, hobequi counprenituric içateco, Uscara-bat-baïcic ezpaliz; eta horren-gagnen, erran ahal dioquegu, goure aberatstarçunian praübe guirela. Cer eguin? Ahal beçala imprimatu, batian Ciberoutarra, bestian Bache-Nabartarra, Laphourtarra edo Guipuzcoarra, iracourçaliac Uscara subertiac oro balaquitça beçala, eztaquitçanac ikhasbitça.”

(*Uscal Herrico Gasetta, 1848ko ekainak 30, 2. or.*)

Xaho politikaria zen eta euskaldunon botoa lortzeko aldizkari bat plazaratu zuen. Horregatik, euskaraz hitz egiten zien. Kazetan bere ideiak agertzen zituen:

“Bakhotchac bere oficio: apheça eļiçan, redactorea bere gasetan. Etcitiala ocupa goure mundu hountaco aferez, nahi ezpaduçu çoure beste munduco eta Erreligioneco sinhestiaz ocupa gutian. Gaseta eguile jalkhitcen bacira, ni pheredicari bilha niteçu, eta beharbada, nour nahic beçain ountsa erran dioquçut noun den Ifernia, noun den Pharadusia.”

(*Uscal Herrico Gasetta, 1848ko uztailak 25, 2. or.*)

Bigarren zenbaki hori *Uscal Herrico Gasetak* argitaratu zuen azkena da. Bi zenbaki besterik ez zituen plazaratu. Hala ere, Xahok euskal kazetaritzari bide eman zion. Euskara hutsezko lehen aldizkariak Iparraldeko apaizen erantzuna ekarri zuen: **almanaka xuriak**. Almanakak ipuinak, laborarientzako aholkuak, efemerideak, anekdotak, erlijio-kontuak eta antzerakoak biltzen zituzten urtekariak ziren. Iparraldean, xuri ezizenarekin erlijioso eta kontserbadoreei esaten zitzairen. Gorriak, aldiz, errepublikazaleak eta liberalak ziren, 1789ko Iraultzaren aldekoak, baina Napoleon Enperadorearen aurkakoak. Irain moduan, xuriek gorriek sozialista eta komunista esaten zieten:

“Badira Francian ainhitz sistimetaco guizonac. Batzuec deitzen dira comunistac. Hech nahi dute ontasun guciac, bai eta emazteac eta haurrac oro comun izan diten, batere bereciric gabe, batere ezcontzatic gabe; guciac nahas mahas, familia bakhar bat baliz bezala mundu gucian. Orduan buhameac eta salbaiac bezala, ez, orduan alimaleac bezala guinitazke [...].

Berce batzu onheskichago dohatzi, eta deitzen dira zocialistac. Hauc nahi lukete eguin dadin herri bakhotchcan granier comun bat, batera bilditezen herrico bihi eta probisione guciac. Gobernamentuac izan dezan ondasun gucien conduita [...]. Idurizaut buhame edo salbai airebat behar dela gauza horren gustatceco [...].”

(Escualdun Laborarien adiskidea eta Conseilaria presuna suerte gueientzat on dena, 1850).

Gorriek, erantzunez, haien almanaka propioak kaleratu zituzten. **Almanaka xuri eta gorrien lehia** luzea izan zen eta berrogeita hamar urtez luzatu zen.

Hego Euskal Herriko almanakek, oster, ez zuten politikarik agertu. Nekazari-kontuak azaldu zituzten, batez ere, bertso egiturari sarritan. Honakoak, adibidez, bizkaieraz:


“[...] Aurtengo urte onec
asco emoteco.
Labrancia goxectic
ondo eguiteco.
Berandu dabillena
ezdala seguru
neure borondatia
onetara dozu.
Egurra ta icatza
gambaran daucanac
ahi ce aundiya potza
echian sartubac.
Baña onetaraco
eguin aleguiña
cergaitic izango dan

guztien premiña.
Contuac etarai zus
cer esan nai dodan
aleguiñac eguzus
dempora onetan [...].”

(Gorosabel, Josef: Eusquerasco, pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcairaco, Guipuzcuaraco ta Aravaraco. Eta dá ateria icusbide luce batzuc daucazan Mendi altu batetic, derichona hermita bat Santa Eufemia. Eta da Medicua Arlabanco erditic. Aurtengo urteraco dauca epactida zazpi, 1859).

Euskal Herriko herrialde guztiek euskarazko prentsan euren ahalegina egin zuten eta, horregatik, euskalki gehienek agerpena izan zuten. Nafarroan, adibidez, Arturo Kanpionek 1878an sortutako **Revista Euskara**. Euskarak aldizkariaren laurdena bakarrik hartzen zuen. Gainerakoa erdaraz argitaratzen zen.





Arabako euskara ere **Gure Izarra** Parisko astekarian jasota dago. Aldizkari hori 1888an martxan hasi zen eta berriemaile arabar batzuk zituen. Honela idazten zuten haien herrialdeari buruz:

“Araba probintzian, erri bic, iruc edo erri geyagoc egitendute Ayuntamentu bat, Vitoriya, Salbaterra eta beste errirenbat apartatu ezkeror; Barrundiaco Ayuntamentua amairu errirekin egiña dago. [...] Emen ezdira falta tabernac eta dendac non boltza utza

ezduanac jan da eran eginlitekean. Ozaeta da bada amairu erri oyetan buru izatea onduen meraciduan erriya; besteac baño erri aundiagua da, gañera emen bicida Medicua, lur neurtzallea, secretariyua, emen dago botica eta emendic pasatzenda cochebidea Vitoriyara.

Emengo izketa edo itzmodua ezta ez euskera ez erdera, emetic euskera igez egindu eta erdera ez da oraiñdic allegatu: chapela chapel eta cherriya cherri, orra emengo izketa.”

(Gure Izarra, 1888ko urriak 30, 1. or.)

XIX. mende latz horren azken adierazlea Ameriketara bizi hobe baten bila joandako euskaldun kopuru altua dugu. Estatu Batuetako Kalifornian finkatutako euskaldunek euskaraz irakurtzeko aldizkariak topatu zituzten. Martin V. Biscailuzek **Escualdun Gaset**a kaleratu zuen 1885ean. Euskal Herritik urrun, baina euskara eginkizun: zein hizkuntzatan argitaratu? Euskaraz, erdaraz ala ingelesez?

“Gaseta hunen eguileak iskiriatcen du Gazeta hau, erakhusteko beste nasioner Escualdunak ser diren eta ser eguiten ahal duten eta posible dela Escuaras ere gazetaren eguitia edosoin beste lenguayas besen [...]. Gazeta hunen eguileak eguiten du gazeta hau kurio sitates, seren eta frango aldiz errana isanis Escuarasko Gazeta bat es othesen eguiten ahal herri huntan. Orai eguiten dut hau modeletsat. Ikhusten badut pagatuko duela imprimatceko gastuyak astean behin eguinen dut bat eta herriko berri gusiak emanen tut eta ere Estado Unidocoak eta Europacoak [...]”

(Escualdun Gaset, 1885eko abenduak 24, 1. alea, 1. or.)



Euskarazko aldizkariak hurbileko gertakizunen berri ematen zuen. Azken batean, Kalifornian bizi ziren euskaldunek euren errealitatea interpretatzeko giltza izan nahi zuen, prentsa idatziaren helburu nagusia horixe baita. Horrela, Estatu Batuetako gertakizunak euskaraz azaltzen zituen, Gobernua kritikatzeko bazen ere:

“Hombeste urthe hotan Apache indio horiek [Arizonakoak] harritzecko da sombat malur eta crima eguiten duten eta hala ere gobernuak estu deusik eguiten. Indiuek nehor harrapatcen dutelarik estute beste nacionek besala hiltcen. Indiuek harrapatuta buruko larruya kensen dute bisik direlarik eta emastekiak igual tratatcen diuste berek nahi dutena eguin onduan. Batzuetan buruco larruya kenduta arbolak estakuturik usten tuste. Haur tipiak berris, sangotic har eta lurrari yoka hilsen tuste.”

(Escualdun Gasetak, 1885eko abenduak 24, 1. alea, 2. or.)

“Askenian hasi dira Washingtonen behien pushkabat arghitzen [...]. Hombeste urthe hotan, General Crook isenaduen imbecil, cobarde bati beha egon gira orai arthan [...]. Espero dugu oraico aldian Gobernuak sanyatuco duen eta sarrico duen norbeit bere nacionia errespetatcen duena.”

(Escualdun Gasetak, 1886ko urtarrilak 16, 3. alea, 1. or.)

Escualdun Gasetak hiru zenbaki bakarrik atera zituen. Argitalpen kostuak ordaintzeko behar beste harpidedun egingo zituela uste izan zuen Biscailuzek. Zoritxarrez, ez zen irakurleei esker irauteko moduko euskara hutsezko aldizkaririk suertatu: 75 harpidedun behar zituen. Horrek utzitako hutsunea San Frantzisko hirian Jean-Pierre Goitinoren **California-ko Eskual Herriak** bete zuen. Sorterritik urrun zeuden euskaldunon komunitatea osatzera etorri zen 1893an:

“Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu haimbertze garelarik hedatuak Pacifico-ko kostan ez da yustu baizik yunta guiten denac berriketari baten medioz. Gure intresak -hemen bederen- igualsuak dire eta gure mintzo ederraren medioz bat bertzen herriak yakiten ahal ditugu gure lekhotik hihuitu gabe [...]”

(California-ko Eskual Herria, 1. zenb., 1893ko uztailak 15, 1. or.)





California-ko Eskual Herriak lau urtez, larunbatero, Far West-eko albisteak plazaratu zituen. Hortaz, bizimodu gogor hori ogibide zutenek aldizkarian ere parte hartzen zuten. Euren kezkak eta gorabeherak gutun bidez bidaltzen zituzten. Horren adibide Juan H. Aniotzbeherek Monterrey-tik bidalitako bertsoak ditugu:

“Artzainaren bizia da orai urrikaltzeko
Nehondik dirurik ezin atheratu gastuen egiteko
Ez ahalda bertze holako urtherik sartuko
Yaun Zerukoa da gutaz urrikalduko.”

(California-ko Eskual Herria, 1. zenb., 1894ko uztailak 7)

Euskal Herrian, bitartean, xuri-gorrien borrokak jarraitzen zuen Iparraldean. Gorriek, errepublikazaleek, *Le Réveil Basque* astekaria plazaratu zuten 1886an.

“*Réveil Basque* da jurnal bat sinheste guziak errespetatzen dituen, errelijionari batere gerlarik egin gabe. Nahi du bakea eta unionea; nahi du Frantziaren handitasuna ta fortuna; ezin gehiago da atchikia Frantziari eta Eskual Herriari [...]”

(*Le Réveil Basque*, 1887ko urtarrilak 2, 1. or.)

Henri-Martial Berdolyk, Departamentuko hautagaiak berak, aldizkaria sortu zuen. Astekari elebiduna zen: euskaraz eta frantsesez idatzia. Azken batean, *Le Réveil Basque* errepublikazaleen bozeramaile bihurtu zen:

“[...] Dans le canton de St.-Palais, deux candidats se trouvent en présence:

D’un côté, M. Diriar, réactionnaire, partisan du régime dit que l’Assemblée nationale a déclaré ‘responsable de la ruine et du démembrement de la France’.

De l’autre, M. Berdoly, ancien Sous-Préfet de Mauléon, conseiller municipal de St.-Palais, candidat désigné par le Congrès aux élections législatives du 4 octobre dernier [1885]. M. berdoly est soutenu énergiquement par tous les républicains du canton, au nombre desquels Mr. Baratchart, maire de St.-Palais, Président du Comité républicain, et Mr. Posper Pradet-Balade (...).

Ez sinhets diotenac Murde Berdoly errelijionaren etsaya dela. **Gezurra diote!** (...).

Ez sinhets erreiten dutenac Murde Berdoly errebouzioneco gizona dela, familiaren eta hontasunaren etsaya. **Gezurra diote!** (...). ”

(*Le Réveil Basque*, 1886ko uztailak 11, 1. zenb., 1. or.)



*Le Réveil Basque*rekin lehian aritu zen xurien aldizkariak **Eskualduna** izena zuen. Azken hori 1887an sortu zen eta euskarazko argitalpenik iraunkorrena bihurtu zen. Gainera, oso zabaldua ere bazen eta hainbat irakurle zituen. Hamaboskari moduan hasi bazen ere, laster astekari maiztasuna hartu zuen. Bere mezua, esan bezala, guztiz kontserbadorea zen. Honela laburbiltzen zuen orduko egoera politikoa:

“Europako populu guciac gidatiac izan dira Erregez edo Emperadorez [...]. Ochala! Guc ere Errege edo Emperadore bat bagindu gidaritaco! Bainan, ehun bat urthe huntan, Frantzia gaichuac ikhusi ta hirur erreboluzione izigarriez bere Erregue edo Emperadore maiteac desterratuac, eta heien plazan hirur Errepublica.

Bethi eta bethi Frantziaren caltetan izan da, ezic Errepublicac ez daucu ekharri nahaskeria, inyustizia eta miseriaric beizic.”

(*Eskualduna*, 1887.eko urriak 24, 18. zenb., 1. or.)



Jean Hiriart-Urrutik 1891n **Eskualduna** zuzentzeko lanari ekin zion. Berarekin ere, aldizkariak bere hiru zutabeei eutsi zien: erlijio katolikoa, familia eta tradizioa. Bere zuzendaritzapean, *Eskualduna* markarik onenak lortu zituen: 1907an, 7.000 ale saltzen zituen Ipar Euskal Herrian soilik.

Hego Euskal Herrian, aldi berean, karlistek liberalen aurkako guda galtzeak 1876. urtean foruen indargabetzea ekarri zuen. Erresuma Batutik Industria Iraultza etorri zen garaia dugu. Horrek, industrializazioa eragin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan, batez ere. Horren ondorioz, azkenik, jende-mugimendu itzelak ezagutu zituzten orduko euskaldunek: landagunetik hirira eta Espainiatik Euskal Herrira. Testuinguru horretan,



euskal kontzientzia sortzen hasi zen eta ordena berri horren kontra egitea lehenengo eginkizun izan zuen. Sabino Aranak bere proiektu politiko berria ezagutzera emateko, hainbat aldizkari sortu zuen: **Baserritarra** (1893-1897) eta **Bizkaitarra** (1894-1895), adibidez. Iparraldean, euskaraz abiatutako komunikazio-proiektuak nagusi ziren bitartean, Hegoaldean prentsa ekimenak euskaraz eta erdaraz argitaratzen dira. Zergatik? Aldizkari politikoak zirelako. Politikarako euskara aldarrikapena da eta horren berri al bait herritar gehienengana heltzea helburua da. Horretarako, gehienen hizkuntza erabiltzen dute: erdara. Euskarazko hedabideek, aldiz, euskara dute eginkizun eta errealitatea. Hortaz, aldizkarion publikoa euskaldunek osatzen dute.



Aranak abiatutako aldizkari politiko horiek bi hizkuntzatan argitaratzen ziren. Euskararen inguruko gaiak, gehienetan, euskaraz lantzen zituzten, herriaren euskalduntasunak abertzaleatasunari zilegitasun politikoa ematen ziolako:

“Thazoten da Bizkaijen erri batzuetara etortie maixu erdera bakarrik dakijenenak [...]. Ezpadago barriz ume erderaz dakijenik, gogue bete gure badau maixuek, emon bierko dau eskuez edo bestela berezko agiriren bat, edo jhun daguen tokire [...]. Aituko dan edonok, lelengo euskeraz ikasi biar litzekeiala, eta gero sustraijak artutakoan, nai etsian bada bere, izketa orretan erderazko ikastegikua ikasiko dabe euskeldunak.”

(Bizkaitarra, 1894ko azaroak 30, 17. zenb., 2. or.)

Resurrección M^a Azkuek bere ikuspegia islatuko zukeen Hegoaldeko euskara hutsezko aldizkaria bultzatu zuen Bilbon: **Euskalzale** (1897-1897). Horretan, kultura eta informazioa tartekatu zituen hasierako zenbakietan; Euskal Herriko berriak zein kanpokoak ematen zituen:

“Aste onetako barriak.

EUSKALERRIAN.

Araban.- Bitoriako Gobernadorean kontra, egun onetan tšakurrenkan esan daroez eguneroko albistari batzuk.

Bizkaian.- [...] BERMEOKO zoro-etŕsea asko aurreratu eidade; ta datorren udagoienerako edegiko eida. ¡Andiegia izango alda! [...].

Zuberoan.- Aspaldion eguraldi tsarrak dagoz euskal errialde onetan. Gitsitan ezautu dabe, zarrenkan bere, eurite ain iraunkorra [...].

Gipuzkoan.- [...] Errialde onetako Ekauta edo Diputazinoiak aintzat eta ontzat artu dau, Donostiako euskalzale batzuk eginiko eskaria; eta da, Gipuzkoako kale erdalizendunai euskerazko izena ondoan ezartzea [...].

Beste errialdeetakoak beste onenbezte egingo balebe, Euskalherriak eleuke gaur legez erdalerria irudiko [...].

ERDALERRIETAN

Beljikan.- Bruselas-en emakuma bat, ioan dan ilean, adierazletzat artua izan eida ango Auzitegian. Orainarte beti izan dira gizonezkoak, berbeta batetik besterako biurrerak (traduzinoiak) egiten izan dabezanak [...].

Indian.- Bombai deritson urian triskantza andiak egiten eidauz izurriak [...].”

(*Euskalzale, 1897ko urtarrilak 3, 7. or.*)

Aldizkariaren bitartez, Azkuek euskara eta euskal gizartearen inguruko bere ikuspegi propioaren ekarpena ere zabaldu zuen. *Euskalzale* euskara hutsez argitaratzen zenez, hizkuntza ez zen goraipatu beharreko gaia, errealitatea baizik. Garai hartan, industria sortu berriak ezarritako ordena berriaren kontra aritu zen, bestetik, nekazal munduak ulertu eta interpretatu ezin zuen bizimodu eta euskalduntasunaren amaiera zekartzalakoan:

“**Bizkaian.**- [...] GERNIKAN... Gernikan ia ia Pancorbon baino Sanchez gehiago dagoz. Euretariko bat eidago geure *Zugatz* maitea ta Batzar-etsea iagon edo zainduten.”

(*Euskalzale, 1897ko urtarrilak 3, 7. or.*)

Bizkaitik argitaratuta, Euskal Herri osoa informaziogunetzat hartu zuen. *Euskalzalek* orduko berriemaileak ugaltzea ekarri zuen. Bitartean, urritasunari barre egiten ere asmatu zuen Azkuek:

“**Bizkaian.**- [...] ARRATIAKO barririk eztaki oraindino EUSKALZALEK. Tširristek [Azkueren ezizena] ionalditsu bat egin bear izango dau ara bere.”

(*Euskalzale, 1897ko urtarrilak 3, 7. or.*)

Txirristez gainera, *Euskalzal*en, orduko hainbat euskal idazlek kolaboratu zuen: Felipe Arrese ta Beitiak eta Arturo Kanpionek, kasu. Horregatik, hasierako berri-emaile eginkizuna alboratu zuen eta aldizkaria kulturara gerturatu zen. Espainiak bizi zuen giro politiko nahasgarrian, euskara hutsez argitaratzen jarraitu ahal izateko giltza ere bazen. Mugimendu abertzale sortu berriarekin, Euskal Herri osoko ikuspegia geureganatu genuen. Euskalzalek, hortaz, Ipar eta Hegoaldeko Euskal Herriko berriak zabaltzen zituen, alde kulturalari erreparatuz. Esaterako, 1897an Eibarren langileek egindako 1. greba ekarri zuen giro nahasia ez zuen aipatu, bai ordea Donibane Lohitzuneko jaiak iragarri:

“[...] Iñoiz ez lekose iaialdi eder batzuk dagoz aurten itsaserri polit onetan. Il onetsen 15an, Andra Mari-egunean, azita hurrengo zazpi egunak izango dira bertako iai edo iolas-egunak.

Ona emen zelanbait iragarrita iai eta iolas onek [...].”

(*Euskalzale, 1897ko abuztuak 5, 7. or.*)

Bizkaiko Gobernadore Zibilak 1899an erdaraz ere argitaratzeko agindu zion *Euskalzaleri*. Neurria bete

ez eta garai hartako ehun pezeta ordaindu behar izan zituen Azkuek (adibidez, *Ibaizabal* urte batzuk geroagoko aldizkariaren urteko harpidetza-kuota hiru pezetakoa zen!). Horregatik, zenbaki batzuk euskaraz eta erdaraz plazaratu eta gero, diru-zorrek 1899an bertan *Euskalzale*ren itxiera ekarri zuten.



Aldi berean, Ipar Euskal Herriko *Eskualduna* Jean Hiriart-Urruti zuzendari eta Louis Etxeberri sortzailearen arteko haserrealdiak izen aldaketa ekarri zuen. Sortzaileak izena bera erregistratu zuelakoan, ez zion Hiriart-Urrutiri *Eskualduna* izena erabiltzen utzi. Horregatik, 1903tik 1908ra bitartean *Eskualdun Ona* izenarekin kaleratu zen Baionako astekaria. Etxeberri hiltzean, haren alargunak *Eskualduna* izena erabiltzeko baimena eman zion Hiriart-Urrutiri. Tarte horretan, bide batez, zuzendariak bere ukituak eman zizkion astekariari. Hasteko, euskara sendotu zuen. Bigarrenik, informazioari leku handiagoa eskaini zion. Horretarako, berriemaile-sarea osatu zuen eta laborantza, jai eta tokian tokiko albisteak jasotzen hasi zen. Azkenik, zuberotarrak erakartzeko, ortografia bateratua erabiltzeari ekin zion. Horrekin guztiarekin, *Eskualduna* (eta *Eskualdun Ona*) Ipar Euskal Herriko gizartean errotu zen. Horren adibidea irakurle-kopurua dugu: 1903an, 1.000 ale zabaltzen zituen bitartean, 1908an 7.000 bezero inguru lortu zituen!



320

EUSKALZALE

Moldagintzako lege zutunik dagoanaren 11-garren aginduko eskakizun batzuk bete eztabe-zakako, Vizcaya-ko Agintari *zibildak* EUSKALZALE albistariari ezarritako 100 makurreko multa ordainduteko eskini jakuzan emoleen izenak:

Nombres de los señores donantes que se nos han brindado á satisfacer la multa de cien pesetas impuesta por el señor Gobernador civil de Vizcaya á la revista EUSKALZALE, por no haber llenado ciertos requisitos del artículo 11 de la vigente ley de imprenta:

	PUNTOS
Doña Ramona de Eguía	0,25
» Aquilina de Mendicute	0,25
» Agustina de Mendicute	0,25
» Tomasa de Odriozola	0,15

	PUNTOS
Don Manuel de Eguen	0,10
» Wenceslao Andersch	0,25
» Eugenio de Arzubalde	0,20
» José de Mondragón	0,20

Ebaristo Bustintza *Kirikiño* lagun, Azkuek 1902an ***Ibaizabal*** astekariaren proiektua martxan jarri ahal izan zuen, Bilbon. Bertan, euskarazko hedabideen premia azpimarratu zuen eta *Eskualduna* eredutzat jarri ere:

“[...] Minduteko gauzea da izan be, Europa guztiko izkuntzetan albistariak ikustea, gueu bakarrik gareala ainbakoak. Gure anaia Prantzes-Euskaldunak daukee bat Donibane Lohitzunen (San Juan de Luz) amabost urte onetan, *Eskualduna* derichona, erdizka Prantzesez eta Euskeraz eguiña; beste bat eidaukee Kalifornian, ara bizi izaten joan direanak sorturikoa [...]”

(*Ibaizabal*, 1902ko urtarrilak 5, 1. zenb.)




Ibaizabal aldizkariari ere Sabino Aranaren heriotzaren berri ematea egokitu zitzaion:

“Sabino Arana ta Goiri.

Eguasten goizaldean il zan Pedernales-en Bizkaiaren seme zintzo au [...].

Sabino Arana jaunak berak esaten eieutsan lengo urte baten bere ta gure adiskide bati: Jose Mari, azia erein dogu, ta uste dot lur onean, emongo dau landarea, ta azkenez ondo zainduten bada alort edo frutua [...]”

(*Ibaizabal*, 1903ko azaroak 29, 2. or.)




Ebaristo Bustintza *Kirikiño*ren ekarpena aldizkariaren hizkera laua dugu, bizkaieraz eta gipuzkeraz idatzia. Gipuzkoak, oraingoan, Bizkaiak baino pisu handiagoa zuen: *Ibaizabalek* garatu zuen berriemaile-sareak Gipuzkoako hamabi herri eta Bizkaiko zortzi zituen informaziogunetzat. *Ibaizabalen* zenbaki bakoitzak hiru mila aleko botaldia zuen. Guztira, ehun zenbaki baino gehiago kaleratu zituen.

Testuinguru politikotik harago, foruzale eta abertzale sortu berrien arteko lehiatik kanpo, hizkuntzaren kontzientzia piztu zen. Horren eredu ***Euskalduna*** aldizkaria dugu, 1898an sortua:

“Euskaldun arteko askok dauke alper edo ezer ezetako gauzatšak euskeraz berba egitia, eta kaltarkizun arteraiño be [...]. Ama euskalerrriaren seme onak diriala daukenak egiñik euren buruak, egiñ biar leuke egitiarren berak itz egin eban itzkuntzan. Baña euskalerrriak orain be euskeraz itz egiten dau, eta bere semiak egin biar dabe beti euskeraz, dakienak, eta eztakienak biar dabe

ikasi [...]. Ez dakite lege zarra ta euskera egon diriazala alkarturik beti, ez dabelako auskeriak sartzen itsi geure mendietan izkune ta gogamen tsarrik.”

(*Euskalduna*, 1898ko otsailak 13, 76. zenb.)



Ondoren, hamarkada luzean Hego Euskal Herriak euskarazko artikulua argitaratzeko zailtasun handiak izan zituen. Iparraldean, ordea, *Eskualdunak* bere sasoirik onena ezagutu zuen. Espainian, garai hartan, langile mugimendua pil-pilean zegoen eta orduko bizi-baldintzek bultzaturiko hainbat greba aurrera eramane ziren. Hori erantzunez, sarritan, Estatuak alde zuzeneko zentsura ezartzen zuen. Euskal Herrian, Engracio Aranzadi *Kizkitzak* salatu zuenez, ez zegoen euskaraz zekien zentsorerik¹; horregatik, sasoian sasoiko zentsore erdaldunek zuzen-zuzenean euskarazko artikulua debekatzen zituzten.

1 1911ko urriaren 7ko *Bizkaitarra*-n (145. zenb.) argitaratzeko idatzi zuen artikulutik aterata. Azkenean, ez zen plazaratu.

Giro politikoa baretu zen tarte batean, euskal munduaren norabidea eramango luketen bi erakunde sortu ziren: Eusko Ikaskuntza (1918) eta Euskaltzaindia (1919). Azken horrek **Euskera** aldizkaria sortu zuen, Resurrección M^a Azkue lehen euskaltzain zuela, hizkuntzaren inguruko gaiak ezagutzera emateko. Sabindarren teoriak, baina, ez zetozen Euskaltzaindiakoekin bat eta euren aldizkari propioetan bizkaiera garbizalea plazaratzeari eutsi zioten: **Euzkadin** (1931-1937) eta **Euzko Deyan** (1916), batez ere.



Euskal hizkuntzaren Akademia sortu berriari aurre egiteko, gainera, **Euzkerea** izeneko aldizkaria ere bultzatu zuten sabindarrek. Proiektu horretan Azkuerekin *Ibaizabal* aldizkarian ibilitako bidai lagunak parte hartu zuen: *Kirikiñok*. Orain, *Kirikiñok* sabindarren bizkaiera garbizalea hobetsi zuen, euskalkien berezitasunak mantentzeko asmoz. Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroako euskaldun gehienek euskararen eredu integratzaileagoa nahi zuten:

“Ausarta banindadi, kitzikaño bat nezoke egin bakarrik. Gogorra da, dorpea, askotan truskila, bizkaitarren euskara. Garbiago zauku, leunago ere mendiez hunaindian derabilaguna, nahiz den gutien bat aberatsago hangoa. Ahopaldia bertzalede luzeago, eta itzulika geiagorekin, bizkaitarrek. Irakurtzen dugularik, ezin adituarekin askotan buruan min emaiten dauku.”

(*Jean Etxepare, Eskualduna, 1921eko abuztuak 12*)

Abertzaleen artean ere, ez zetozen euskara ereduarekin bat. EAJk eredu sabindarrari ekin zion eta ANV-EAE, adibidez, euskalkirik ez bereiztearen alde azaldu zen, euskara batuaren alde alegia. Horregatik, **Euzkadiko** artikulua bizkaiera garbizalean idatzita zegoen eta **Tierra Vascakoa**, ordea, euskara baturako bidean.

Aldi berean, hainbat kazetari elizgizon zirela eta euskaldungoaren zati nagusiak urteotan erlijioari eutsi ziola kontuan izanda, zenbait aldizkari erlijioso ere plazaratu zen. Ez ziren gutxi izan, gainera: **Jaungoiko-Zale**, **Jesus'en Biotzaren Deya**, **Zeruko Argia**, **Aranzazu** eta **Ekin**. Erlijioaz gain, sarritan ezkerreko alderdien aurka ere idazten zuten:

“Arerijuak egin dabena:

1º Abadia eskoletatik urrindu.

2n. Euzkeraz irakastia eragotzi.

3n. Maisuai ez eroan-azo umiak elexara.

4n. Ikaskizun geyegi ipini, ta orregaz dotriñarako astirik itxi ez.

5n. Maisuak leusindu, alogerak geituta.

6n. Maisu barri askori dotriña gaiztoak irakatsi.

7n. Gurasuen eskubidiak gitxitu.

8n. Geure aldeko legiak auzi.

Guk egin biar doguna:

1º Abadiak ez urrindu eskolatik.

2n. Alegindu euzkeraz irakatsi dagijoen umiai dotriña.

3n. Elexara maisuak eruan dagijezen alegiña egin.

4n. Egunian bein beintzat dotrinia eskolan irakastia lortu arte ez gelditu.

5n. Au egiten daben maisuak saritu iñundik al bada, edo goratu ta euren alde ez ein.

6n. Maisu-geyak billatu euzkeldunen artian, eta lagundu ikasi dagijen.

7n. Edegi euzkerazko ikastolak geuk zuzentzeko.

8n. Legiak emoten dauskuzan eskubide guztijak jagon.”

(*Jaungoiko Zale, 1914ko urtarrilak 4, 17. zenb.*)



“Gure erlijioiko asko gauza etzaizkigu argi erakutsi oraindikan euskeraz. Txoko asko arkitzen dira argitu bearrak. Euskal -etxe batzuetan eztakite dotriña buruz, ez gazte ta ez zarrak. Beste euskeldun batzuek baldin ba dakite ere buruz dotriña, eztute iñoiz aditu edo eztira aditzera jarri; umetan ajola gutxi zitzaioletako ta gero sermoi edo itzaldietan arreta aundi-aundirik jarri eztutelako. ZERUKO ARGIAk bear ditu ba txoko oiek argiz bete, buru oietako illunak aienatu ta ez-jakiñen begi aurrean jakin bear guztiak argi -argi jarri.”

(*Zeruko Argia*, 1919ko urtarrila, 1. zenb.)

Zeruko Argia 1919an Iruñean kaputxino-talde batek sortutako hilabetekaria izan zen. Geroago, Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo errepresioak aldizkaria kaleratzeko debekua jarri zion. Hainbat urteren bueltan, kutsu erlijiosoa utzi, aldizkari informatibo bihurtu eta, 1980an, Joxemi Zumalabek eta Jose Mari Ostolazak kaputxinoei aldizkaria erosi zieten. “Zeruko” izen-erdia kendu eta gaur egun Euskal Herri osoan zabaltzen den *Argia* astekaria bilakatu zen.



Kuriositatea bada ere, *Zeruko Argiak* oraingo *Argia* izateari eutsi orduko, euskaldunok *Argia* izeneko beste komunikabide baten oihartzuna izan genuen. Euskaltzale-talde batek 1921ean Donostian sortutako *Argia* astekaria hainbat urteren ametsa izan zen. Hizkuntza eredu bateratua zerabilen, lehenengoz kazetaritza-generoak euskaraz garatu zituen (albisteak, elkarrizketak, erreportajeak, kronikak...), informazio eta berriemaile sarea zabaldu zuen, irudiaren baloreaz ohartu zen... *Argia* euskarazko kazetaritzaren eredu izan zen:

“Euskaraz guk egiten ez badegu, ¿nork egin bear du? Guretzako ezpada, ¿norentzako da? Euskera euskaldunak ondatu dute. Guziok errudunak gera. Alderdi guzietan aberriko izketa maite izaten da, Euskalerrian ez. euskera itz egiten lotsa dira eusko-semiak. Erdera maiteago dute, ederragotzat daukate. ¿Lotsagarriya ez al da au? Euskaldunen arpegiya euskera da. Onak adirazten d u gure izkera.

- Zergatikan zaudete Euskeraren alde?

-Galduak geralako Euskerarik gabe.

Gorputza eta anima bezela daude Euskalerrria ta euskera alkarri lotuta. Euskera gabeko Euskalerrria, animagabeko gorputza bezela da.”

(*Argia*, 1992ko irailak 10, 73. zenb.)





Argia euskarazko irakurleak sortu eta trebatzeko ezinbesteko tresna bihurtu zen:

“Euskerarik irakurtzen ez dutenen aoetatik makiñabat aitzaki entzun ditugu. Au dala eta ura dala...Batez ere, euskera zalla darabilgula alde guzietan [...].

Bi zailtasun izan ditezke euskera irakurtzean. Bat: **irakurtzeko** zailtasuna; bestea: irakurritakoa **ulertzeko**, entenditzeko, zailtasuna. Besterik ez. Ta entzun zazu, setatsu orrek. Bigarren zailtasun au ez degu emen esango. Nik emen esango detana irakurtzen badezu, ederki ulertuko dezu [...].

¿Ta beste zailtasuna? ¿Zuk ez dakizula euskeraz irakurtzen? ¿Nola jakingo dezu, beiñere ez zera ari ere-ta? Baña entzun berriz: artu zazu asteroko au, egunero-egunero ogei lerro, ogei ilarra irakurri itzazu (ja zer lana, bost minutuko lana!) ta illabete barru errex-errex irakurri ezin badezu gure euskera, sendagilleari (medikuari) deitu zaiozu, burutik gaxo zaude-ta [...].”

(*Argia*’ren Urtekaria, 1922, 49. or.)



Argiaren ibilbidea Ipar Euskal Herrian *Eskualdunak* egindako lanaren parekotzat har daiteke. Bere eragina handi-handia zen eta gainerako euskal hedabideek ere haren inguruan hitz egiten zuten:

“Zenbat bidar esan eta entzun este da, emen Bizkaian be euskeraz bakarrik egindako izparringi asteroko bat bear geunkela, Gipuzkoan *Argia* dauken lez! [...]. Orra ba, emen olako izparringia atarateko eragozpen asko ta andiak azpiratu bear dira. Ia-ia ezintzat euki lei izparringi-atarate ori, ain andiak eta ugariak dira eragozpenok.”

(*Ebaristo Bustintza Kirikiño: Euzkadi, 1928*)

Argiak hainbat gai lantzen zuen. Politikaz ere jardun zuen. Albisteak eman, kronikak idatzi eta egoera politikoa aztertzeko, euskara bidelagun zuen. Hona hemen, esaterako, foruen indargabetzearen urteurrenean idatzitakoa:

“Aurten betetzen dira **larogei ta iru** urte Madrid’ko Gobernuak gure lege-zarraren kontrako lege berri bat argitaldu zuen egunetik. Lege berri orrek autsi zuen gure bizikera, gure eusko-bizitza, gure lege-arauzko izakera. Euskaldunak: ¡gogoratu! Gogoratu gure

antziñako izakera berezia, gogoratu zer giñan eta zer geran. ¿Gure lege-zar garbia maite ez duan euskaldunik bai alda? ez: alderdi guzietako euskaldunak lege-zar zaleak dira, maite dute. Bildu bada guzion maitasun orren inguruan, ta legez ta bidezko zaizkigun eskubideai eutsi gogor, indarrez ta maltzurkeriz kendu ziguten gure lege zarra zutik jarri arte.”

(*Argia*, 1922ko maiatzak 7, 55. or.)



Hortaz, garai hartako prentsaren antzera, Euskal Herriko sistema politikoaren beharrizanez mintzatu zen *Argia*. XX. mendearen hasierako Espainiako gobernuak zenbait gorabehera izan zituen, orduko bizi-baldintza latzek eta goseteak eraginda. Azkenik, 1931ko hauteskundeek Errepublika ezarri zuten. Erregimen politiko berri horrek Hego Euskal Herrirako estatutua aurreikusi zuen, Eusko Jaurlaritzaren sorrera ekarriko zukeena, azken horrek autogobernurako zenbait eskumen kudeatzeko. Lehenengo zirriborroak Hegoaldeko lau herrialderentzako estatutua zekarren. Orduko prentsak horretaz eztabaidatu zuen. Hona

hemen *Argiak*, *Euzko* aldizkari jeltzaleak eta ANV-EA Eren *Tierra Vascak* horretaz azalduakoa:

“Erdaldunari etzaio egoki euskaldunari ‘estatutua’ ematea, ta alegin guzietan dabil, gogorrean eta itz leunka, euskalduna atzipetu nairik. Eta Euskalerrin baditugu erdalzale batzuk ta oiek ere bide batez jo dute ‘Estatutua’ren aurka [...]”

(*Argia*, 1933ko urriak 15)

“Catalunya’k lortu dauan Araudija naikua ete litzake Euzkadi’n jagitten dan abertzaletasunaren egarrija asetuteko? Catalunya’tarr askorentzako, geyenentzako, lortu daben Araudija, naikua dala-ta gagoz [...]. Catalunya’ko katalanistakattik sarri entzun dogu emengo ‘euzkalerriakoen’ antzekoak direla. Euzkerea goxian eta zezenak arratsaldian; erdiija euzkottarra ta beste erdiija españa’tarra [...]. Emen Euzkadi’n be, ‘euzkalerriakuen’ onduan bai-dagoz orretariko batzuek, eta Euzko Araudija lortuten bada, orduantxe ezautuko doguz nortzuk eta zenbatzuek diran ordalleko abertzale-euzkotarrak, Araudija gauza on-ona ixango litzake gustijoen bijotzian euzkotasuna sartzeko berori egitteko erreztasun geyago eukiko genduke ta. Baña ezta ori Euzko Alderdi Jeltzalia’reen egarrijak asetzen dauzan iturrija. Ezta Euzko Araudija Euzkadi’reen eskubidiak ornituko dauzan neurkiña [...]. Au eta besterik ixango EUZKADI AZKATUTEA baño.”

(*Euzko*, 1932ko irailak 18, 8. zenb.)

“Gure abertzaletasuna ezta ‘racista’ edo abenda aidekoa gura daunentzat baño da alan da be guztiok ontzat artu dituguz usteak elburu bardiñak batu dauzalako [...]. Orregatik sortzen dira aberriak izkuntz berezi duen errietan, elerrti edo literatura berekorra, ta jakintza

berekorra edo bere ‘kultura’ daben errietan, baña, onek, gauza guztiok, izkuntzatic sorturiko gauzak dira, da, orregaitik, izkuntza da aberriaren zuztarra ta ez bere odolaren izakera.”

(*Tierra Vasca, 1933ko martxoak 13, 95. zenb.*)

Argiak aurrean zituen erronkei ondotxo heldu zien. Euskaraz normaltasunez idazteko lehen pausuak emanak baziren ere, euskarazko kazetaritzak beharrezko zuen hizkera teknikoa garatu barik zegoen. Euskal mundutik ez zetozen hainbat kirolen berri eman behar izaten zuen: futbola, boxeo... Horiek euskarara gerturatzeko lana *Argiak* egin zuen, neurri handi batean. Esaterako, boxeoak futbola baino jarraitzaile gehiago zituen Euskal Herrian, Paulino Uzkudun gipuzkoarrak ibilbide ospetsua egin zuen-eta kirol horretan. Hari egindako elkarrizketa bakarra Bittor Garitaonandiak *Argian* plazaratu zen:

“[...]Firpo’kin ere jokatzeko zerala entzun degu.

-Baliteke bai; Londres’en ikusi nai gaituzte. Beste toki askotatik ere aske daude, bañan oraindikan ez det batere itz-emandakorik; beraz, izperringiak (periodikuak) dioten guzia, esanak besterik ez dira; erabakirik ez dute. Lenbizi Spalla azpiratu ta gero...

-Gero Ipar-Amerikara.

-Bai; Amerika ortan ni ikusteko gogo aundia daikate noski; alde guzietatik deizka dauzkat. Nere alde lenbailen obe; aspaldi ontan oyetako ukabilkari gogor batzuen aurrean jartzeko gogoz, irrikitzen nago.

-Peseta asko irabazteko ere ez omen da biderik txarrena.

-Ala diote.

-Tira ba; gertu ukabillok, eman muturreko zuzen ta onuratsuak, bete sakelak dolarrez ta itzuli zure Euskalerriko txoko atsegin ontara munduko txapel nagusizburua estalirik. Irriparrez bere esku sendoa luzaturik agurtzen gaitu Uzkudun’ek. Agur adizkide ta... jokatu beti.”

(*Argia, 1925eko martxoak 15, 1. or.*)


Futbol partiduen berri emateko ere, hizkera berria osatu behar izan zuen *Argiak*, Futbolaren izena be aldatzeraino: “ostiketa” esaten zion-eta. “Ostikolariak”, hortaz, futbolariak ziren; arbitroak “epaile” ez ezik, “txistulari” izena ere jaso zuen; partida erabakiko luketen golak “guenak” bihurtu ziren eta partida bera, “ostiketaldia”. Hona hemen Real Sociedad-Osasuna 1924ko euskal derbiaren kronika (3-0):

“Jende asko bildu zan igandean Atotxan donostiar eta naparren ostiketaldia ikusteko. Torre jauna bizkaitar epailea txistulari zutela, bitakoak gogatsu asi ziran jokatzan: bañan laister erakutsi zuten donostiarrak, iruñarrak bañon askoz geiago zirela. Bost miñutu baño len Urbina’k bikain ta garbi lenbiziko guena (goal) sartu zuen [...]. Donostiarrak bizkortu ziran berriz eta Juantegi’k berak bakarrik bestên tartetik pelota eramanaz, zuzen sartu zuen ate-barrenera. Poztu ziran donostiarrak, ainbanatzeko (enpatatzeko) arrixkoa aldendu zutelako. Beriala bukatu zen lenengo ekiñaldia. Bigarren ekiñaldian ez genuen gauza aundirik ikusi. Ez batzuek eta ez besteak etziguten erakutsi jolasketaren edertasun gutxienik ere. –Ura bai zala naste-borraste! [...].

Donostiar batzuei ere zerbait esan bearra badegu. Oyu ta deiadar egiñaz jokalariai ez dute ezer irabazten, ikusleak gutxiago. Iskanbila -zalên kontra gera beti; es (sic) jarraitu bada beren ikasbideari. Ongi da jokalariai txaloz ta aupaz adorarriak ematea; zalaparta eta iskanbilez ez ordea [...]. Torre txistulariak noiz txistu egin badaki, alde bitakoai berdin begiratuaz. Bukatu da lenbiziko ekinaldia, Real Sociedad gain gelditurik.”

(*Argia*, 1924ko azaroak 2, 185. zenb.)

Euskal komunitate zabalera heltzeko, publiko guztientzako argitalpenak beharrezko jo zituen *Argiak*. Hortaz, 1927an ume euskaldunengana ***Txistu*** komiki-aldizkariarekin gerturatu zen.



Azkenean, *Argia* euskarazko lehenengo egunkaria bihurtzekotan egon zen, Jose M^a Agirre *Lizardik* bultzatuta.

“Nere aburua zan astekari-egunkariak BAT egitea. Artara, egunkaria besterik elitzake izango, ta onek, astean bein, ale berezi bat ateratze’aal-luke. Astearen egunetarik bostean, beraz, egunkaria eskuan dezutenaren aundiko litzake. Igandeetan, berriz, ale berezia, ale aundia: au da, egunari dagokion egunerokoa ta, erdian sartuta, beste ainbesteko astekaria. Ale aundi ori egunkari naiz ‘Argia’-irakurle guziei elduko litzaioke: bere lanik aundiena egunkaria zabaldu ta bazterretarañotzea litzake. Egunkariak, esateko, aste gorrian egunero iru milla ta bosteun ale salduko lituke, ta igandean zazpi, zortzi, agian amar milla ale, berezi oietarik, orrela bere bideak gerorako urratuz. Badirudi, gañera, biak bat ez egiñenean, elitzakela ain erreza astekari-arpideduna egunkari-arpidedun egiten.”

(*Argia*, 1929.eko ekainak 16)

Asmoa ez ezik, proiektuaren lehen urratsak emateari ere ekin zion *Lizardik*:

“Egunkaria badator!!!!...

Bai, jauna! Egunkaria ber-bera ezpa-dator ere, ori etorbidean jarri bearra, zirt edo zart egin bearra, bai, badator. “Euskaltzaleak” lan aundia egin du bi illabete auetan, ixillik egon bada ere. Batez ere, arren eta arren itzaldi bi oietara etortzea eskatzen diegu Euskaltzale-Batz edo Federación de Euskeristas delakoaren Bazkun guziei, ordezkari bitartez: EUSKALTZAINDI, JAUNGOIKO-ZALE, EUSKERAREN ADISKIDEAK, ESKUALTZALE BILTZARRA, BARAIBAR TALDEA, eta abar. Ordezkari bana bialtzea ORDAINDU EGINGO ZAIE. Azkenik, lengoak gutxi badituzu, irakurle, entzun belarriertzera esan bear dizugun zertxo bat: itzaldi oietara bazatoz, gauz jakingarriak irakatsi ezezik, esku sari bat, ‘erregalo’ bikain bat emango dizugu. Ez iñori esan, baña...EGUNKARIA ESKUAN IPIÑIKO DIZUGU.

(*Argia*, 1929.eko ekainak 16)

Espainiako 1936ko altxamendu militarrek eta ondorengo Gerra Zibilak amets hori zapuztu zuen. Euskarazko egunkariaren proiektua bertan behera geratu ez ezik, *Argia* astekaria bera ere desagertu zen. Ondorioz, euskarazko lehenengo egunkaria sortzeko 55 bat urte itxaron behar izan genituen, Francoren Diktadura luzea igaro eta euskarazko kazetaritzaren oinarriak berriz ezarri arte. *Argiaren* sorreratik 70 urtera ***Euskaldunon Egunkaria*** plazaratu zen.

Gerra aurreko euskarazko kazetaritza gaur egungoarekin alderatu da, baliabide ekonomiko gutxiagorekin, jakina.

Alde batetik, euskal idazleen belaunaldi ospetsuaren aldia izan zen: Nikolas Ormaetxea *Orixe*, Estepan Urkiaga *Lauaxeta*... Bestetik, euskarazko prentsak aurrerapen ikaragarriak izan zituen: *Argia*, esan dugunez, astekari maiztasuna utzi eta egunkaria izateko proiektua zegoen, 1920ko hamarkadan euskarazko irratia ere martxan zen (*Donostia Irratia -Radio San Sebastián*)... eta euskarazko prentsak irakurleak bazituen. Ipar Euskal Herriko *Eskualduna* astekariak, adibidez, 7.000 irakurle zituen!

Espainiako 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarrekin batera, euskarazko prentsari azken hamarkadan ezagutu zuen aurrerabidea baztertu eragin zioten. Errepublikak Hego Euskal Herriarentzat aurreikusi zuen estatutuaren bigarren bertsioak Nafarroa kanpo uztera behartu zuen. Horrela, Eusko Jaurilaritza Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gobernua izan zen. Horren burua, Jose Antonio Agirre lehendakari gaztea. Agirrek Euskadi gerra garaian antolatu behar izan zuen. Gerrarekin batera, paperaren eskasia etorri zen eta aldizkari gehienek plazaratzeari utzi behar izan zioten. Besteetan, baina, altxamendu militarren aldekoek aldizkarion bulegoak hartu eta bertatik beste tankera bateko kazetak kaleratu zituzten.

Eusko Jaurilaritzaren ekimenez, 1937an ***Eguna*** egunkaria sortu zen. Euskarazko lehenengo egunkaria izan bazen ere, proiektuak merezi zuen garrantzia itzali zion gerrak. Esaterako, Nafarroa eta Araba frankisten esku geratzean euskarazko prentsa desagertu zen, gerraren lehen egunetik bertatik.

Eguna aurrera ateratzeko lan-taldea Manu Ziarsolo *Abeletxe*, Augustin Zubikarai, Eusebio

Erkiaga, Alexander Mendizabalek eta Jose Maria Arizmendiarretak osatzen zuten, hainbaten laguntzarekin. *Egunak* gerra egoeran bizi zen herri baten miseriak argitaratu behar izaten zituen, herria zelanbait antolatzeko. Jatekoa urria zen garaietan, hurrengo egunetan zer banatuko zen, zer erosi ahal izango zen eta zer ez (gehienetan) azaltzen zuen, herritarren gogoa behera etor ez zedin:

“Umientzat janari bereziak [...]. Arda zuria salgei laster. Astelenean banaketa barria, galletak be bai.”

(*Eguna*, 1937ko apirilak 1, 77. zenb., 5. or.)

“Gaurtik aurrera ogia izango degu [...]. Langilleak geyago jango dute [...].”

(*Eguna*, 1937ko apirilak 7, 82. zenb., 4. or.)

Eguna, aldiz, frontean banatzen zen, batez ere. Horregatik, gerra kontuak azaltzen zituen batik bat: frontearen gorabeherak, Errepublikaren garaipenak, ustez laster etorriko zen atzerriko gobernuen laguntza... Tartean, gerraren ondorioen berri ere ematen zuen. Italiako armada faxistak Durango bonbardatu eta hurrengo egunean bertan honakoa zen *Egunaren* lehen albisteko titulua:

“Paxisten egazkiñak Tabira zarraren gañean. Durango’ko Miren Deunaren elizara bonba ugari jaurti zituen. Kristo’reñ Odol deuna orma eta zoztor artean ixurita. Otoi egiten egozan monja bigunak il. Jaunartzeko ziran gudariak odoletan, gorputzak zatituta. Meza esaten inarduen abadeak, berun ilkorak jota. Tabira odoletan!”

(*Eguna*, 1937ko apirilak 1, 77. zenb., 1. or.)



Otxandioko frontea defendatzen zeuden hainbat durangarrek herrira itzultzeko egun batzuetako baimena eskatu zuten, etxekoekin egoteko. Horren ondorioz, gudari eta miliziako lagunak aldarteari eusteko, *Egunak* ez zuen galdutako hirien kronika esanguratsurik idatzi. Horregatik, Durangoko bonbardaketatik hogeia egunera izandako Gernikakoak ez zuen tratamendu ikusgarri bera izan *Egunan*. Bigarren bonbardaketa horren eguneko lehengo albisteak gudarien adorea goraiatzeko zuten:

“Gure mutillak kementsu ta zindo agertuten dira”

(*Eguna*, 1937ko apirilak 28, 100. zenb., 1. or.)

Eta honela azaldu zuten Gernikako bonbardaketa, egunkariaren azken orrian:

“Gernika, euzkotarren uri maitea, birrindu nai izan dabe zearo”

(*Eguna*, 1937ko apirilak 28, 100. zenb., 6. or.)

Bonbardaketaren beste bertsio hau, oster, Baionako *Eskualdunak* zabaldu zuen:

“Guernicako arbola ez omen dute haatik hunki. Molaren Eskualdunek zaintzen dute arbola saindua.

Geroztik izan diren kaseta egilr Frantsesek diote gorriek berek dutela eman sua. hnsn egin zsten bzzla [sic]”.

(*Eskualduna*, 1937ko maiatzak 7, 1.931. zenb., 2. or.)

Agerian denez, *Eskualdunak* Francoren bertsioa zabaldu zuen. Baionako astekariak Diktaduraren hizkera asimilatu zuen: gorriak Francoren kontrako guztiak ziren. Franco *Eskualduna* 1887an abiatu zuten Frantziako xuriekin lotu zuen astekariak.

Frankistek 1937ko ekainean Bilbo hartu zutenean, *Eguna* euskarazko lehenengo egunkariak kalean izateari utzi zion. Euskadik gerra galdu zuen eta Diktadurapean euskara zigortu zuten irabazleek.

Ipar Euskal Herrian, bestalde, Hitlerrek 1940an okupatutako Frantzia bizi ziren. Garai hartan, Europan mugimendu faxistak nagusitu ziren: Espainian, Franco gerra irabaztear zegoen (Alemania eta Italiaren laguntzarekin); Mussolinik Italiako agintea eskuratu zuen; eta Alemaniako buruzagi Hitlerrek hainbat

herrialde okupatu zuen, Frantzia tartean. Naziek Ipar Euskal Herrira sartu eta bertan argitaratzen ziren bi kultur aldizkari mututu zituzten: **Gure Herria** eta **Euskaltzaleen Biltzarra**, hain zuzen ere. Baionan kaleratzen zen *Eskualduna* astekaria, aldiz, XIX. mendeko xuriekin jaio zen eta izaera eskuindarrari eutsi zion. Nazien okupaziopean, haiekin lerrokatu zen eta, naziekin batera, Espainiko Gerra Zibilean Francoren alde azaldu zen: Gernikako bonbardaketaz zer zioen ikusi berri dugu. Hona hemen *Eskualdunak* Agirre lehendakariari egin zion kritika, Francoren Estatu-kolpeari aurre egiten ahalengintzearen:

“Bizkaian aro onaren beha dago Mola azken jauziaren egiteko Bilbao barneraino. Kurritzen hasi zen elhea baizik ere Eskualdun gobernioa gerlari uko eginik Francorekin baketzera zohala.

Bainan ez, Aguirrek jakin arazten du biphilki. Holakorik ez dutela gogoan iragan ere eta ari direla beren lanari etsaiaren ez uzteko Bilbaorat hurbiltzera [...]”

(*Eskualduna*, 1937ko apirilak 23, 1.929. zenb., 2. or.)

Oraingoan, aliatuek (AEBetako armadak) 1944ko martxoaren 27an Biarritz bonbardatu zuten:

“Guk choko huntan, bethi idea berak [...]”

Bombak ari dira hurbiltzen: Parise, Bordele, Miarritze eta gero? Noiz othe Donianeko merkatiaren aldi?

[...] Hoi badakigu eta beste asko gauza, baina Amerikanoei lothuak gira eta ez ditugu utziko.

Guk idea berak!”

(*Eskualduna*, 1944ko maiatzak 5, 3.294. zenb., 2. or.)

Eskualduna astekariak gogor ordaindu zuen lerraketa politikoa eta, aliatuek Frantzia askatzean (1944an), euskarazko astekaria itxi zuten. Hegoaldean ez bezala, Iparraldean euskarazko astekari berria plazaratzeko aukera izan zuten. Horrela, 1944an bertan **Herria** sortu zen. Lehen artikuluan euskara prentsan agertu arte joan den denborak penatuta agertzen da:

“Lehen agurra.

Munduaren bihurtune huntan eskuararen boza berantetsia ginuen.

Hura nun entzunen dugun berria.

HERRIA sorthu da.

Nahi baino luzeago juan zauku ephea: berantetsiaren buruan, begitarte hobea baizik ez duke [...].

Orori eskerrak, oraiko ala geroko. Egungo hargnoa haziko dugu elgarrekin: bihar ikus dezakezue hatsa luze, gotor eta susoal.”

(*Herria*, 1944ko urriak 19, 1. zenb.)

Herriarekin, behintzat, Euskal Herrian bada euskarazko prentsarik, Iparraldean bakarrik bazen ere. Gaur egun oraindik banatzen den astekaria dugu. Hegoaldean, berriz, Frankismoak zirrikiturik zabaldu arte, guztiz ezinezkoa izango da euskaraz ezer plazaratzea. Plazaratu

arren, zentsura ezarriko diote eta hainbestetan, hedabideak eurak itxi ere (Iruñeko *Zeruko Argia*, adibidez). Erbestean, azkenik, euskaraz argitaratzeko ahaleginak egingo dira. Helburu bakarra dute: euskarazko irakurlerik ez galtzea eta, horrekin batera, euskaren herriak etorkizuna izatea.





HANDIK HONA

Kazetaritzak hizkuntzaren beharra dauka, hori du-eta tresna. Hizkuntzak kazetaritzari zabalkundea zor dio. Euskarazko kazetaritzaren bide-egileei esker, gure aurrekoen gertuko historia ezagut dezakegu. Erdarazko aldizkariak euskarari mesede egiten ez ziotelakoan, erdaraz ikasitako lagunek euskarazko kazetari moduan jardun zuten, euskal irakurleak sortzeko. Haiek gaur egungo Euskal Herria egingarri bihurtu zuten. Horretarako giltza nagusia herritarren topatu zuten: munduari euskaraz begiratu nahi zioten irakurleen babesa.

Euskarazko kazetaritzak bi puntu nagusi ditu. Iparraldeko euskaldunen saiakerak eta *Argia* astekaria. Lehen euskara hutsezko argitalpenak Ipar Euskal Herriko lagunek bideratutakoak dira: “Jaun Dauphin cenaren eritasuneco circunstancia berezien errelacionea, haren coffessorac arguitarat emana” erlacionea (1766), *Uscal Herrico Gaseta* (1848), *Eskualduna* (1887) eta *California-ko Eskual Herria* (1893). Ondoren, Resurrección M^a Azkueri esker,

Hegoaldeak ere euskarazko astekariak ezagutu zituen, *Euskalzale* (1898) eta *Ibaizabal* (1903) aldizkariak zabalduz.

Bestetik, *Argia* astekariaren aitzindaritzak oraindik miresgarria da. Euskararen erronka berriak bideratu zituen: politika hizkera, kirol hitz teknikoak, publiko berrietara heltzeko ahalegina. Egunkaria izatea bakarrik falta izan zitzaion. Proiektua hastear zegoenean, Francoren Estatu-kolpeak 65 urtez atzeratu zuen. *Argiarekin* batera, euskal idazleen belaunaldi ezaguna amatatu nahi izan zuen diktadurak.

Iparraldeak euskarazko kazetaritzaren urratsak eman zituen. Hasierako komunikazio-proiektu eta ekimen guztiak Ipar Euskal Herriko euskaldunek abiatutakoak dira. Izan ere, 1886tik hona euskarak ez du Iparraldeko prentsan isilunerik ezagutu. Frantzia okupatuan nazien alde egin izanak astekariaren itxiera ekarri zuen. Hala ere, datuei erreparatuta: Lapurdi, Baxe-Nafarroa eta Zuberoako 7.000 lagunek *Eskualduna* erosten zuten. Handik ehun urtera, *Euskaldunon Egunkariak* 2003an 11.000 ale zabaltzen zituen, Euskal Herri osoan! Dudarik ez, *Argiaren* proiektu zapuztuaren ondoren euskarazko kazetaritza Hegoaldean isilik egon bazen ere, proiektua aurrera aterako zuen baliabidea zain izan du: herria (helmuga eta bidea). Bide horretan jarraitzen dugu, helmuga beraren bila: herriaren euskara eta euskararen herria. Izan zirelako gara eta garelako izango dira.





BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "Prensa euskaraz: 1936ko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren garaian". *Jakin*. 1989, 50. 95-119. or.
- AGIRREBALTZATEGI, Paulo: "Erdararen atzeritik euskararen aberrira". *Jakin*. 1987, 42-43. 97-117. or.
- ARANBERRI, Luis Alberto (*Amatiño*): "Prensa idatziaren arazoak", *Jakin*. 1982, 22. 70-82. or.
- AZURMENDI, Joxe (ed.): *Hizkuntza eta talde-nortasuna: Donostiako Udako XII Ikastaroak. 1993ko Uztaila*, Donostia: EHU, 1998. 309 or.
- BATXI (BILBAO, Juan Bautista): *Hau mundu arrano hau 1914-1916*, Zarautz: Susa, 1997. 66 or.
- BIDADOR, Joxemiel (ed.): *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936): Testu antologia I eta II*, Iruñea: Iruñeko Udala, 2003. 277 or.
- : *El nacimiento del periodismo en lengua vasca: la relación de Bayona de 1766*, Euskonews & Media 78. zenb., 2000/05/12-19 [Sarean: www.euskonews.com, 2007/10/18an kontsultatua]. 9 or.
- : *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995. 298 or.
- ETCHEPARE, Jean: *Beribilez*, Donostia: Elkar (Euskal Editoreen Elkartea), 1987. 225 or.
- : *Buruxkak*, Baiona: Elkar, 1991. 180 or.
- GARRO, Lander: *Ez merkeenak! Bai onenak! Argia euskal publizitatearen abian*. Irun: Alberdania, 2006. 120 or.
- HIRIART-URRUTY, Jean: *Ni kazeta-egilea naiz: Artikulu, berri, istorio*, Bilbao: Labayru, 2004. 715 or.
- IPARRAGIRRE, Pilar: *60ko hamarkadako hitzak: Elkarrizketa hautatuak*, Lasarte-Oria: Komunikazio Biziagoa, 2001. 192 or.
- KINTANA GOIRIENA, Jurgi: *Vizcaytik Bizkaira?: R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*, Bilbo: Euskaltzaindia - BBK Fundazioak, 2002. 180 or.
- KIRIKIÑO (BUSTINTZA, Ebaristo): *Aberriaren alde: Artikulu politikoak*, Bilbao: Labayru, 2005. 343 or.
- : *Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde*, Bilbao: Labayru Ikastegia, 1984. 289 or.
- : *Egunekoa*, Bilbao: Labayru Ikastegia, 1981. 229 or.
- DIAZ NOCI, Javier: *Berripaperak (1766-1937)*, Leioa: argita-ragabea. 132 or.
- HIRIART-URRUTY, Jean: *Gontzetarik jalgia-raziak*, Donostia: Klasikoak (Euskal Editoreen Elkartea), 1994. 88 or.
- LARREKO (IRIGARAI, Pablo Fermin): *Gerla urte, gezur urte: Iruñea 1936-1940, isiltasunean mintzo*, Iruñea: Pamiela, 1993. 341 or.
- : *Lekukotasuna*, Donostia: Klasikoak (Euskal Editoreen Elkartea), 1992. 68 or.
- : *Nafarroatik*, Donostia: Klasikoak (Euskal Editoreen Elkartea), 1992. 53 or.

LAUAXETA (URKIAGA, Estepan): *Azalpenak 1931-1935*, Bilbao: Labayru Ikastegia, 1982. 109 or.

MANEZAUNDI (ZUBIRI, Enrike): *Artikulu bilduma*, Bilbao: Labayru (Euskal Editoreen Elkarte), 1990. 204 or.

RAMIREZ DE LA PISCINA MARTINEZ, Txema: *Kazetari-l@na Euskal Herrian: Interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak*, Bilbo: EHU eta UEU, 1998. 361 or.

RUIZ DE GAUNA, Adolfo: *Catálogo de publicaciones periódicas vascas (siglos XIX y XX)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza – Eusko Jaurilaritzaren Kultura eta Turismo Saila, 1991. 942 or.

RUIZ OLABUENAGA, Jose Ignacio eta OZAMIZ, Jose Agustín (ed.): *Hizkuntza minorizatuén soziologia*, Donostia: Tartalo, 1986. 509 or.

SÁNCHEZ CARRIÓN, Jose María (Txepetx): *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*, Donostia: Elkar, 1987. 112 or.

SARASUA, Jon: *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari: gaiari egindako gainbegiratu eta euskarazko kazetaritzaren tradizioa lau kazetatan hitz eta esamoldeen hustuketa kualitatiboa*, Leioa: doktore-tesi argitaragabea, 1996. Vol. I, 260 or.; Vol. II, 389 or.

SOLE CAMARDONS, Jordi: *Soziolinguistika gazteentzat*, Bilbo: UEU-EKB (*Adorez eta atseginez mintegiak* prestaturiko argitalpena), 1991. 153 or.

XARRITON, Pierres: “Euskararik gabeko Ipar Euskal Herria?” *Jakin*. 1979, 9. 22-26. or.

ZALAKAIN GOIKOETXEA, Jexuxmari: *Euskal prentsa herri-proiektua da*, Leioa: doktore-tesi argitaragabea, 1992. 619 or.

--: *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*, Tafalla: Txalaparta, 1993. 282 or.

ZUBEROGOITIA ESPILLA, Aitor: *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*: Egin, Deia, Enbata, Ekaitza, Gara eta Le Journal du Pays Basque *kazeten iker-*

keta eta euskara hutsezko komunikazio-esparru autozentratua trinkotzeko proposamena, Leioa: EHU, 2003. 564 or.

ZUBIRIA, Pello: “Euskal prentsaren desafio berriak”. *Jakin*. 1996, 96. 63-70. or.

INTERNETEKO BALIABIDEAK

<http://www.ehu.es/diaz-noci/azala.htm> (Javier Díaz Noci irakasleak euskarazko prentsaren inguruan idatzitako liburu, artikulua eta hitzaldiak)

<http://www.armiarma.com> (Euskalzale, Ibaizabal, Eskualdun Ona, Napartarra, Argia, Euzkadi, El Día, Amayur eta Eguna kontsultagai)

<http://www.bizkaia.net/kultura/euskara/> (Euskalzale, Ibaizabal eta Eguna, besteak beste, kontsultagai)

<http://www4.gipuzkoa.net/hemerotekakm> (Bai, jauna, bai, Baserritarra, Bertsolariya, Bizkaitarra, El día, Escualduna, Euskaldun Ona, Euskadi Roja, Euskal Etnalea, Euzkadi, Gure Herria, Yakintza... kontsultagai)

IRAKURTZEA BEAÑA DA.



Xabier txo'k ikasi du irakurtzen.
Martin'ek, alpetan daleko, ez du irakurtzen ikasi nai.
Beste lagun guztiak bereala ikasi zuten. Eta gauz politak irakurtzen zihurtzen: *Manu Zorpin* ia *Baso-jaunaren* edestlak. Eta pozez aritzen ziran aek irakurtzen.
Martin, beriz, beti aspertuta egoten zan.
—Ik ere ikasi zak, eta gauz politak jakingo dituk—esan zion Xabier'ek.
Eta Martin'ek irakurtzen ikasi zuen.
Ezrayo, ez, damutu.
Ez jakina, erukari da.

ERANSKINA

(1940ra arteko euskarazko prentsa: argitalpenen goiburuak)

1834 EL CORREO DEL NORTE

1848 USCAL HERRICO GASETA



1883 REVISTA EUSKARA



1883 BAI, JAUNA, BAI



1885-1886 ESCUALDUN GAZETA



1894 LE RÉVEIL BASQUE



1944 ESKUALDUNA



1888 GURE IZARRA

1897 CALIFORNIA-KO ESKUAL HERRIA



1899 EUSKALZALE



1898 EUSKALDUNA



1903 IBAIZABAL



1931-1937 EUZKADI



1919TIK ZERUKO ARGIA



1936 ARGIA



1937 EGUNA



1944TIK HERRIA



KAZETARITZA POLITIKOA

1897 BASERRITARRA

1895 BIZKAITARRA

BIZKAITARRA

ORRI EGAZEGIKORRA

Bizkaiko euskeraz

España'ko erderaz

1909 EUSKALDUNA, PERIÓDICO FUERISTA

1906 LA PATRIA

1908 ABERRI

1913 GIPUZKOARRA

1908 ABERRIJA

1933 ARABARRA

1918 NAPARTARRA

NAPARTARRA

JAUN-GOIKOA ETA LEGE-ZARRA

I. URTEA

IRUÑA

REDACCIÓN Y ADMINISTRACIÓN:

PAMPLONA

AÑO I

I. ZENBAKIA.

1911-Ertean 8.º an

PLAZA DE S. JOSÉ 4 BAJO

6 de Enero 1911

NÚMERO 1.

1922 KAIKU

1936 EL DÍA



1936 AMAYUR



1934 EUZKO

1937 TIERRA VASCA

1937 EUSKADI ROJA



1937 ERRI

KULTUR ALDIZKARIAK

1918 EUSKAL-ERRIA

1899 EUSKALZALE



1903 IBAIZABAL



1932 BERTSOLARIYA



1936 RIEV

1931 EUSKAL-ESNALEA



1936 YAKINTZA



1936 ESKUALTZALEEN BILTZARRA

1923 EUZKO-DEYA

1936 EUSKERA

1940 GURE HERRIA



NEKAZARIENTZAKO ALDIZKARIAK

1907 GIPUZKOAKO NEKAZARITZA

1911 BASERRITARRA



1940-1941 EUSKO-FOLKLORE

1927 EUSKALTZALEAK

1936 EUZKERA

UMEENTZAKO ALDIZKARIAK

1927 Txistu



1936 Poxpolin



1936 JESUSEN BIOTZA'REN DEYA

1920TIK ARANTZAZU

1924 GURE MISIOLARIA

1932-1936 EGIN



ALDIZKARI ERLIJIOSOAK

1932 JAUNGOIKO-ZALE



ILUSTRAZIOEN ITURRIAK

1. orrialdea:

Anders Zorn. *Emma Zorn läsande (Emma Zorn irakurtzen).*

1887. Oihal gaineko olio-pintura, 40.2 x 60.6 cm

14. orrialdea:

Maurice Quentin de La Tour. *Louis de France (1729-1765)*

16. orrialdea:

Uscal Herriko Gaset. **Xipri Arbelbide.** *Californiako Eskual Herria : Jean Pierre Goytino.* -- Bilbao : Bilbao Bizkaia Kutxa, 2003.

18. orrialdea:

Euskara aldizkaria. Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia.

Euskara aldizkariko barruko orriak (Orreaga). Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia.

19. orrialdea:

Eskualdun Gazeta. Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia.

20. orrialdea:

California-ko Euskal Herria. Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia.

21. orrialdea:

Le Réveil Basque. **Xipri Arbelbide.** *Californiako Eskual Herria : Jean Pierre Goytino.* -- Bilbao : Bilbao Bizkaia Kutxa, 2003.

Pedro Zufia, *Geografia de Bizkaia.* Bizkaiko Foru Aldundia, 1935. Azaleko ilustrazioa. Roman Berriozabalek eskura jarrita.

Eskualduna. Euskal Prentsaren lanak:

www.hemeroteka.com

22. orrialdea:

Bizkaitarra. Euskal Prentsaren lanak:

www.hemeroteka.com

24. orrialdea:

Euskalzale. Euskal Prentsaren lanak:

www.hemeroteka.com

Eskualdun Ona. Euskal Prentsaren lanak:

www.hemeroteka.com

25. orrialdea:

Ibaizabal. Euskal Prentsaren lanak:

www.hemeroteka.com

Sabino Aranaren heriotzaren inguruko testua. Euskal Prentsaren lanak: www.hemeroteka.com

26. orrialdea:

Euskalduna. Euskal Prentsaren lanak:

www.hemeroteka.com

Euzkadi. Euskal Prentsaren lanak:

www.hemeroteka.com

Euzkadi aldean duen irakurlea. Juan Manuel Urretabizkaia Quintanak utzitako argazkia. Roman Berriozabalek eskura jarrita.

27. orrialdea:

Jaungoiko Zale. HPS, *Bidegileak* bilduma.

28. orrialdea:

Zeruko Argia. HPS, *Bidegileak* bilduma.

29. orrialdea:

Argia eta *Argia Egutegia*. Koldo Mitxelena kulturunea:

www4.gipuzkoa.net/hemerotekakm.

30. orrialdea:

Familia sutondoan. Gure mendea, ehun urte euskal kulturaren
(CD-ROMaren azala). Argia, 1999.

32. orrialdea:

Txistu aldizkarirako harpidetza eta publizitatea. Euskal

Prentsaren lanak: www.hemeroteka.com

34. orrialdea:

Eguna. Euskal Prentsaren lanak: www.hemeroteka.com

36. orrialdea:

Herria aldizkaria. Eusko Jaurlaritzako Liburutegi
Nagusia.

37. orrialdea

Xabiertxo. López-Mendizabal, Ixaka. Xabiertxo.

Tolosa, 1932. 10. orrialdea. **Txikiren** marrazkia. Roman
Berriozabalek eskura jarrita.

Leon-Augustin, «*La Leçon de Lecture*» (1912).

38. orrialdea:

William-Adolphe Bouguereau:

The Difficult Lesson (1884)



EUSKARA MINTZAGAI

1. Euskararen geografia historikoa
2. Ahozko hitzetatik idatzietara
3. Euskal Herriko prentsa:
XVIII.mendetik 1945era



ratu da eta laster yendea ohartu da
zer gerthatu zen. Murde Carnot
antses Ardi Merinos Finenak.

www.euskara.euskadi.net

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-2844-4



9 788445 728444

P.V.P./Salneurria: 12 €

EUSKAL HERRIKO PRENTSA

XVIII. mendetik 1945era



10 CENTIMOS

ABERRI

10 CENTIMOS

JAUN-GOIKUA ETA LAGI-ZAÑA

1.ª URTEA 1.ª ZENBAKIA	1906—GARILLA—14.ºn.	14 de JULIO de 1906.	AÑO 1 NÚMERO 11
---------------------------	---------------------	----------------------	--------------------

I URTEA

II ZENBAKIA

1 IGANDEA

Oñila (Mayatza)

DONOSTIA 1921

ARGIA

ASTEROKOA

URTEKO: 5,50

Bakoitza: 0,10

28, GARIBAI

25-05 URUTIZIKINA

HERRIA

ESKUALOINDEI BERRIKETARIA

Bilbainak eta Abuztuak: HERRIA, Arriaga Lantze Herria, BAYONNE — Tolosa 387-16

URTEKO URTEA
19-koa
URTEA: 1921
30. LURTEA

BASERRITARRANekazarien elkarte ANAITASUNA-ren albistaria
ATERATZEN DA AMAROSTRAN BEIN

5.ª urtea	BAKOITZA chabur chibit bat	Donostiyan Ibiltza-ren 4.ºn 1908.ºn	URTEKO 21.ª ZENBAKIA	N.º 85
-----------	-------------------------------	-------------------------------------	-------------------------	--------

1.ª urtea

Ibaizabal

1.ª guzia

IGANDEAN IRTETZEN DA

BIZKAITARREZ ETA GUIPUZKOARREZ EGUIÑA

DOMEKETAN IRTETEN DAU

1902.ºn Ibiltza-ren
5.ªEskalerrian. 1.ª paseta urtean. Erdalerrian. 2.ª paseta urtean.
Guei Bakocha Chakur Chiki bat1902.ºn Urteartaren
5.ª

IBAIZABAL—en Echea, Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tenderia), 19—Jaun José Astuy—renean

POXPOLIN 15

1.ª URTEA TOLOSA n. 1. LOPEZ MENDIZABAL 1908.ºn. 1925 1.ª ZENBAKIA



USCAL-HERRIKO GASETA.

Euzkadi-ren arteak euren
arpegiak abertzale irudiaz
estatu oi dabez safian.
Oregatik, balez be gau,
zur ibiltza dagozigu abertzaloi.

Lgo. urtea 77.ºn. zenbakia Idazkolea ta banakolea: Correo, 17.ºn. Bilbae, 10.ºn. urteko 1.ªn. urtea 15.ºn. eunen



I URTEA

Bilbon, Urtarrilari 3.ºn

I GELA

EUSKALZALE

ASTEAN ASTEANGO ALBISTARIA

Première Année. — N.º 22.

Bertalde gurean toki onak badire i
Bainan libretak da. Jose Etxepare-Berrirak i

Vendredi 21 Octobre 1887.

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE



11.ºn. 1907.ºn. 1908.ºn. 1909.ºn.

**BERTSOLARIYA**

15 XENTIMO

GARILLA
19
Iganden

Bilbao, 1906

EuzkadiANITZ GAZTEAK
Bilbainak. 10.ºn. 1907.ºn. 1908.ºn. 1909.ºn.
1.ª urtea. 10.ºn. 1907.ºn. 1908.ºn. 1909.ºn.
2.ª urtea. 10.ºn. 1907.ºn. 1908.ºn. 1909.ºn.

Bilbainak

1.ª Urtea	Bilbainak	1907.ºn. 1908.ºn. 1909.ºn.	1.ª urtea	1907.ºn. 1908.ºn. 1909.ºn.	1.ª urtea	1907.ºn. 1908.ºn. 1909.ºn.	1.ª urtea	1907.ºn. 1908.ºn. 1909.ºn.
-----------	-----------	----------------------------	-----------	----------------------------	-----------	----------------------------	-----------	----------------------------

EUSKAL HERRIKO PRENTSA, XVIII. MENDETIK 1945ERA

Maria González Gorosarriren lana osatzera dator liburuxka hau. Euskal Herriko prentsa denbora luze horretan nolakoa izan zen gertutik ezagutuko dugu, hainbat argitalpenetatik jasotako berriak atera ziren moduan emanda.

Euskara guztietako moldeak integratzen saiatu gara, ikuspegia zabala izateaz batera, tokian tokiko eta aldian aldiko ezaupidea egin ahal izateko. ***Euskal prentsaren ametsa, Euskaraz zergatik, Euskaraz jorratutako kazetaritza*** eta ***Bonbardaketak*** dira propio bereizitako atalak. Aurrena, euskal prentsaren beharra adierazita agertuko da, hizkuntza gehienetan bizi izandako aldarrikapena euskaraz ere izan bazela ikus dezagun. Hurrena, euskararen auzia sasoiko euskal prentsaren ardatzetako bat izan zela konturatuko gara. Hirugarrenik, euskal kazetaritzak landutako eremu zabalera sartu-irtena egingo dugu, edozelako berriak leitzuz. Azkenik, Gernika suntsitu zutenekoa zelan azaldu zuten jakingo dugu, batzuen eta besteen bertsioak alderatuta; baita Bigarren Mundu Gerraren amaierari buruzko narrazioa ere, lerratze ideologikoa oso agerikoa azaltzen duena.

Euskal irakurleak altxor hauek guztiak eskura ditu teknologia berriei esker. Azken urte hauetan hainbat ekimen aberats eta interesgarrik bere egin dute Internet, eta euskarari ate berria eskaini. Horiek barik liburuxka honek ez zuen biderik izango:

www.armiarma.com egitasmoaren baitako *Euskal Prentsaren Lanak* - www.hemeroteka.com (*Euskalzale, Ibaizabal, Eskualdun Ona, Napartarra, Argia, Euzkadi, El Día, Amayur eta Eguna* kontsultagai)

www.bizkaia.net/kutlura/euskara/ Bizkaiko Foru Aldundiko ataria (*Euskalzale, Ibaizabal eta Eguna*, besteak beste).

www4.gipuzkoa.net/hemerotekakm (*Bai, jauna, bai, Baserritarra, Bertsolariya, Bizkaitarra, El Día, Escualduna, Euskaldun Ona, Euskadi Roja, Euskal Eснаlea, Euzkadi, Gure Herria, Yakintza...*).

ATZO GOIZEAN

Paxisten egazkiñak Tabira zañaren gañean

Durango'ko Miren deunaren elizara bonba ugari jaurti zituen.-Kisto'ren Odol deuna orma eta zoztor artean ixurita. - Otoi egiten egozan monja bigunak il. - Jaunartzeko ziran gudariak odoletan, gorputzak zatituta.-Meza esaten inarduen abadeak, berun ilkorak jota.



Stingsen, Sal-cho, Hana ofen g'ra van panna : egnitten boyl.
katt yellen.

Tabira odoletan!

[illegible]

Mante panasak gupak weruta lina
daba liliwatan eperuntan Nibala.
Kada giten katibala, sili atawa
lilipak, buhatk via atab jana-
daba, mania garbun perpanak ada
lilin garun dina.
Amak mania sili lapan'pula hor U
dina, buhatk mania liliat jana
lilin.

"Kivikha" eadikha gadarikh gis-
nakh jafnax dux.
Ea gisnax xaxaxaxax axax max
daxax xaxaxax dakh.
Daxax xaxax gadaxaxax (xax)
xax xaxaxax xaxaxaxax dux gax
axax xaxax xaxaxaxax xaxaxax
xax.



Black and white photograph of a person's face, possibly a woman, looking downwards. The image is dark and grainy.




„Mikroglia“ gegen *Waldmann (1967)* postulierte postitive Interaktion ab

Experto del deudor sobre el estado de la deuda.



10



ANTHONY

Uitgeverij De Persgroep, Amsterdam, 1998. 128 p. 10,-

STAMPAN

Chromolaena odorata (L.) Ait.

Euskal prentsaren ametsa

CALIFORNIA-KO ESKUAL HERRIA



1893ko uztailak 15, 1. zenbakia, 1. or.

“Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu haimbertze garelarik hedatuak Pacifico-ko kostan ez

da yustu baizik yunta gutien denac berriketari baten medioz. Gure intresak –hemen bederen– igualsuak dire eta

gure mintzo ederraren medioz bat bertzen herriak yakiten ahal ditugu gure lekhitik hihuitu gabe [...]”



1902-ko Irailla-ren 21n



EUSKAREA TA BERE ARERIOAK

–¡Ene! ¿Euskeraz bere eguiten dira periodikuak?

–Bai, guizona; euskeraz ber-

ba eguiten dogun leguez, bardiñ edo obeto.

– ¿Euskeraz eguin leiz ba?

– ¿Zergaitik ez?

– Erderaz baiño eziñ eguin leikezala ta uste izan dot.

TIERRA VASCA

1937ko otsailak 14, 54. zenbakia, 4. or.

Euzkadi bat da eta guk ez degu egin nai ezberdintasunik bere zabaltasunean. Baño aurrerago esango detana egia da: Bizkaia ez dala Gipuzkoa. Gipuzkoa-n dauden irakurle euskaldunakin izparringi bat ederki biziko da euzkerazkoa, baina ziur egon Gipuzkoa-

ko irakurle geienak Bizkaian egongo ezbalitazke ‘Eguna’ ezin bizi [...]. Gipuzkoako nekazariak irakurtzen oituta daude euskeraz. Gipuzkoan asko egin da aldizkingi, asteroko eta egunerokoen bitartez, baño Bizkai-ko nekazariak ez dute euskeraz irakurtzek o

zaletasunik edo afiziorik [...]. Gipuzkoan ‘Argia’ asterokoa amar edo amabi milla saltzen ziran eta geiena basetxetan. Bizkaia-n ‘Ekin’ asterokoa, ‘Argia’ idurikoa, iru milla ez ziran saltzen basetxetan.

IMANOL IRAURGI



1929 Garagarilla 16 Igandea, 425'g. zenbakia IX'g. urtea

EGUNKARIA BADATOR!!!


Bai, jauna! Egunkaria berbera ezpa-dator ere, ori etorbi-dean jarri bearra, zirt edo zart

egin bearra, bai, badator.

“Euskaltzaleak” lan aundia egin du bi illabete auetan, xilik egon ba-da ere.

Orain, lan orren berri eman

bear du. Guzioi, alegia, garbi adierazi zenbat bear dan, diruz, arpidez, iragarkiz, eta abar, eta abar, egunkaria bereala egiteko.



Guziok zaudete irrikitzen ori jakiteko, ezta ala?...

Bada, atozte il onen 27'garrean (arratsaldeko zazpiretan) eta datorren illaren 2'garrean (arratsaldeko bost eta erdietan) "EUSKO - IKASKUNTZA"-ra, Diputazio-goian.

Batez ere, arren ta arren itzaldi bi oietara etortzea eskatzen diegu Euskaltzale-Batz edo Federación de Euskeristas delakoaren Bazkun guziei, ordezkari bitartez: EUSKALTZAINDI, JAUNGOIKO-ZALE, EUSKERAREN ADISKI-

DEAK, ESKUALTZALE BILTZARRA, BARAIBAR-TALDEA, ta abar. Ordezkarri bana bialtzea ORDAINDU EGIÑGO ZAIE.

Azkenik, lengoak gutxi badituzu, irakurle, entzun belarriertzera esan bear dizugun zertxo bat: itzaldi oietara ba-zatoz, gauz jakingarriak irakatsi ezezik, esku-sari bat, "erregalo" bikain bat emango dizugu. Ez iñori esan, baña... EGUNKARIA ESKUAN IPIÑIKO DIZUGU.(jjj...?....!!!)

"EUSKALTZALEAK"

Euskaraz zergatik, Euskal Herri euskalduna...



"Euskaldun arteko askok dauke alper edo ezer ezetako gauzatsak euskeraz berba egitia, eta kaltarkizun arteraiño be [...]. Ama euskerriaren seme onak diriala daukenak egiñik euren buruak, egiñ

biar leuke egitiarren berak itz egin eban itzkuntzan. Baña euskalleriak orain be euskeraz itz egiten dau, eta bere semiak egin biar dabe beti euskeraz, dakienak, eta ezta-kienak biar dabe ikasi [...]. Ez

dakite lege zarra ta euskeria egon diriazala alkarturik beti, ez dabelako auskeriak sartzen itsi geure mendietan izkune ta gogamen tsarrik."



1902-ko ilbeltzaren 19n

BILBO-KO EUSKALDUNENTZAT

Orañ denpora asko ezta, adiskide bat eta biok Santo Domingo-tik Bilborantz, Begoña-tik zear guentozala, Andra-Mariaren eleiza ugn-

ruan aurkitu guendun mutil koskor pillochu bat. Nire lagunak itaundu eutsen ia euskeraz ekien; ezetz erantzun euskuen.

Gure itauneak lotsatu eguin ebezala esan zeikean, bada, euretariko batek bere burua garbitu eban onetara: Nire aitak eta amak badakie, bai-

ña ezteuste sekulan euskeraz berba eguin da eztoz ikasi; ezpadakit, eztaukat nik errurik.

Buru-garbite au ikusita esan gueutsan: ¿iri, orduan, gustauko lelik euskeraz jakitea? Ta mutilko zoliak erantzun euskun: *Yo lo que digo es que de*

todo es bueno saber (1).

¡A, mutilchu polita, eure amar amabi urte laburretan, ire gurasoak baiño zentzun gueiagi erakutsi euan!

Ume aren erantzunak echatzan joan gogotik egun askotan.

Ezteuste euskeraz berba egui-

ten neure gurasoak. Bilbon bizi direan euskaldunak, banakaren bat izan ezik, ori eguiten dabe guztiak euren seme-alabakaz.

¿zegaitik eteda? Urrean izango da erdera barik guera-ru eztaitezan bildurrez; baiña, orregaitik bada, zentzunbako-
tasun andia da benetan. ¿Bilbon, erdera ikasiko ezeteda-been bildurra? Eguin daigun, guraso batek nahi dabela, bere semeak ez erderarik ikastea Bilbon; aleguiñ guztiak eguin da be, erdereia ikasiko leus-
kioe semeak berak gura nai gurez, Bilbo erdallerria dalako berba-egukeran.

Orisse berberori pasaten iake Bizkaian da Guipuzkoan, Gaztelatik datozen maisu ta osaguille ta beste bizimodue-
takoai; eurak nai ezarren be, andik dakarrezan umeak las-
ter euskeraz ikasten deutse, ehetik kanpora euskera bai-
ño besterik eztabeelako ent-
zuten.

Beraz, uri onetan, umeak er-
deraz ikasiko etedabean edo
ezetedabean beldur izatea,
lelokeri andia da. Echean eus-
kerea entzun da ikasi-arren,
kalean ikasiko dau bai erde-
rea, bearbada larregui bere.

¿Zegaitik da orren ardura la-
rregui artutea erdereagaitik? Erderea, gaur, euskerea baiño zabalduago dagoelako, ta bi-
zimodua aterateko premiña gueiagokoa dalako. Baiña ori
alan dala ¿euskera jakiteak
gachik egingu etedeutso
iñori? Ez arean. Berbeta biak
daukazana bide obeagoan
dago bere bizimodurako.

1902-ko Ibilbizararen 19*	Euskalerria, ire poesta urtean. — Etxalerria, sei poesta urtean. Gusi Bakocha, Chakur chidi bat.
IRATXABAT-en Etxea: Bilbon — Dendarri Kalean (Calle de la Tendería) 19 — Ja- skutut edo karta guztiak zuzendu baituz artezariaren echea: Tivoli, letra B.	
BILBO-ko ESKALDUNENTZAT	entzun da ikasi-arren, kalean ikasiko dau bai erderoa, bearba- da larregui bere.
Orain denpora asko etala, alaskido bat eta biok Santo Do- mingo-tik Bilborantz, Begona- tik zor guentzola, Andra-Ma- riaren Eleiza ingurutan aurkitu gandun mutilk oskor pilloin bat. Nire lagunak itandu euten ta euskera; okien; ezte erant- zun euskun.	¿Zegaitik da orren ardura la- rregui artutea erdereagaitik? Erderea, gaur, euskerea baiño zabalduago dagoelako, ta bi- zimodua aterateko premiña guei- agokoa dalako. Baiña ori alan dala ¿euskera jakiteak gachik eguingu etedeutso iñori? Ez arean. Berbeta biak daukazana bide obeagoan dago bere bizi- modurako.
Guri itaunak lotatu eguin ekela esan zekitan, bada, eu- retariko batok bere burua gar- bitu eban onetara: Nire atak eta amak badakit, baiña ezte- uste sekulan euskeraz berba eguin da eztoz ikasi; ezpadakit, ezta- kat nik errurik.	Euskeria, ondo ostipolatu dik duguru gurea erregi; bai- da alan da guzti be, baita dau erretitilo gaur askotako Eus- kal-errian. ¿Eteuste ikusten, gaur be, zotik belhen, iraga- riak peritodiktan, nun jakin eragiten dan, bizi-bide edo ko- loktazio baterako baldintzan edo kondizioan atean euske- ra jakitea dala bat Bizkaian da Guipuzkoan abade edo osaguil- le edo sekretario izateko erri- chituki askotan euskera jakin beaz da; erriale bietan, logue- guitzak euskera jakiteaz obari edo bostale anida daukeela itok ezta ukatu lei: Euskal-erria an-errosan edo komerzioan da- lilluari be ondo jatorke eus- kera; Bizkaian ez, baita Guip- uzkoan notario izateko euske- rako ezterotak edo osaguil- le dagoz Euzkarian. Euskera pre- mizakoa dabeen bizi-bide guz- tiak ean guzitek ipini; baiña eta beaz bezik dau eta orri duguzak. Orri be, zelan eus- kera jakitea itoz ondo etorri leitekon: (1) beraz, berbeta biak daukita gurtz obeago dala es- tan itok ukatuko.
Ume aren erantzunak echa- zan joan gogotik egun askotan. Ezteuste euskeraz berba egui- ten gurasoak. Bilbon bizi di- rean euskaldunak, banakaren bat izan ezik, ori eguiten dabe guztiak euren seme-alabakaz. ¿Zegaitik eteda? Urrean izan- go da erdera barik guera-ru eztaitezan bildurrez; baiña, orregaitik bada, zentzunbako- tasun andia da benetan. ¿Bilbon, erdera ikasiko ezeteda-been bildurra? Eguin daigun, gura- so batek nahi dabela, bere se- meak ez erderarik ikastea Bi- zkaian da Guipuzkoan, Gazte- latik datozen maisu ta osaguil- le ta beste bizimoduetakoai; eura- k nai ezarren be, andik dakar- rezan umeak laster euskeraz ikasten deutse, ehetik kanpora euskera baiño besterik ezta- beelako entzuten.	Asieran alatu dola mutil- ehu zentzundunak zedun eguis euan euan alitu leike. Je- ra ta beste Bilbortar asko aurki- tu leiteke, hiar edo etzi, euren gurasoakitik charro osteko zorian, euskeraz irakatsi eun- telako.
Orise berberori pasaten iake Bizkaian da Guipuzkoan, Gazte- latik datozen maisu ta osaguil- le ta beste bizimoduetakoai; eura- k nai ezarren be, andik dakar- rezan umeak laster euskeraz ikasten deutse, ehetik kanpora euskera baiño besterik ezta- beelako entzuten.	Gozarte edo konsidera- zio guztiak lurrean kontra kon- tra-koak diru; jagu gainan ar- tu bat baita espada, kontuan artu daigun gurea. Eztairi ta beraz bere berbetari zor duteagun mailetasuna, ta eta zetan euan duguzak.
Beraz, uri onetan, umeak er- deraz ikasiko etedabean edo ezetedabean bildur izatea, lelo- keri andia da. Echean euske- ra entzun da ikasi-arren,	(1) Euskerian gaur dagoen euzkalerria guztiak bidezko eta iturri ari dala gure euzka- lertzerian. Euzkalerria gaur dagoen euzkalerria guztiak bidezko eta iturri ari dala gure euzka- lertzerian.

(1) Nik diodana da, ondo dala guztia jakitea.



1932ko martxoak 18, 20. zenb.

“Araudi nagusi edo Konstituziñoko lege batsuk, batez ere Erlejiñuaren kaltez artez ta zuzen doyazanak, Euzkelerrijan indar gutxiago eukiko dabe [...]. Ikastoletatik, zoritxarrez, orain arte, bastartuta egon dan gure Euzkera ederra, barriro berari jaokon tokijan jarri ta ikastoletaratuko dogu, irakasle euzkeldunak

euretan jarrita. Ikastola nagusi edo unibersidadea be geure-geuria ixango dogu. Guda mutillak, euren guda-aldija, atzerrijan barik, Euzkelerrijan bertan egingo dabe. Osagille, lege-gizon, notarijo, erri-zaindari ta abarr, geure artekuak, euzkeldunak ixango doguz.”



1921eko abuztuak 12

“Ausarta banindadi, kitzikafino bat nezoke egin bakarrik. Gogorra da, dorpea, askotan truskila, bizkaitarren euskara. Garbiago zauku, leunago ere

mendiez hunaindian derabilaguna, nahiz den gutien bat aberatsago hangoa. Ahopaldia bertzaleda luzeago, eta itzulika geiagorekin, bizkai-

tarrek. Irakurtzen dugularik, ezin adituarekin askotan buruan min emaiten dauku.”

JEAN ETXEPARE



1932ko ekainaren 21a

ESPAÑARRAK ESTATUTOAREN AURKA

Burgos'en ikusi ditugu ikustekoak, katalandarren eta euzkoen Araudi edo “Estatutoa”ren aurka. Amorruren-amorrua burutik egin da dabil emen jentea. ¿Oarkoak ala burugabeak? Bata ta bestea, naski, edo nik ez dakit zer esan.

Burgos'era sartu nitzanian uste izan nuan, jan edo iruntxi biar ninduela, bertako gazte taldeak (ikasle edo “estudiantiak” noski), eskuetan zeramazkien orri batzuk darrigoz artu-erain bearran. ¡Aien deadarrak! “¡Burgos contra el Estatuto!” deadar eta deadar egiten. ainbat orri artu-erazi dizkaite, nai ta nai ez. Jarri naiz irakurtzen, eta orriaren idazburua,

auxe da: “Nuestra protesta contra el estatuto”.

Orri ontan ba'dago astakeria ugari; inguarria da eta iraingarria benetan, euzkotarrentzat eta katalandarrentzat, Burgos'ko ikasliak, saloski-etxeak, latariak eta gañetiko txoriburu guzien idazki asarreak agertzen dira katalan eta euzko-araudien aurka. Geienak Gobernuari asarez bialdutako idatzi ta urrutizparren “kopiak” dira.

Idatzi oyetako baten idazburua, auxe da: “Catedras de catalán, “vascuence”, bable, gallego y caló”. Asikeran onela dio: “El idioma español, hablado por más de cien millones de seres humanos, con oficialidad en más de



veinte naciones y con difusión creciente en los demás países de Europa va a ser abandonado en diversos pedazos de su propio solar nativo”.

Gero beste astakeri asko esan ondoren, onela bukatzen dute idatzi au: “En mérito de lo expuesto, suplicamos a V.E., la cesantía de todos los catedráticos de latín, griego, hebreo, sancrito, francés, inglés, alemán e italiano, creando en su lugar en todos los centros docentes cátedras de catalán, vascuence, bable, gallego y calo, imponiendo, además, al magisterio de Primera Enseñanza la obligación de iniciar a los niños en el conocimiento de dichos lenguajes”.

Beste zati batek, onela dio: “Mal podrá conocer el alumno de la escuela de Comercio el precio de la butifarra en el mercado de San Cucufate, sin saber escribir el catalán ni conocer el vascuence y el gallego. El estadista no sabrá como dirigirse a los Ministerios de Hacienda en busca de datos para sus estudios si ignora que quizá el ministro de Hacienda andaluz se denomina “ministro de Guita”, “ministro del Dirue” el vasconavarro, y ministro de as Cadelas” el gallego, etc., etc.

Orra zer dioten “burgostarrak” “estatuto arazo onek ematen dioten buruko-miñagatik; baña politena ez-degu agertu oraindik.

Beste zati baten, auxe irakurtzen da: “... puetso que, según la Prensa, se han de llevar a las escuelas de Primera Enseñanza aparatos de radio, debe obligarse a las centrales emisoras que todos los días hablen un ratito en catalán, otro ratito en gallego y un rato -muy grande- en VASCUENCE, y, además, por el clásico principio pedagógico de “enseñar de-

leitando”, debe intercalarse alguno que otro disco con sardanas, “aurreskus” y muñeiras, con lo que se conseguirá desterrar el charles, el fox y el tango.

Eta onela bukatzen da beste zati bat: “Preparémonos a protestar con toda energía si se pretende establecer el lingüismo en los centros docentes. El bilingüismo encendería entre nosotros una “cruenta guerra” racial que no había de solucionarse de “boxeo”, sino que habría que “ensangrentar” todos los claustros de los edificios académicos. No! Por nuestra cultura, por nuestra dignidad de españoles y por sentido humanitario, debemos de oponernos al tremendo “peligro” que significaría la aprobación de los Estatutos.

Eta azkenik auxe: “¡No! antes que el bilingüismo, “independencia” absoluta de unos y otros”. ¡Bapo zio!

Carlos Alonso erdal (republicano) idazle ospetsuak, berris, auxe diño “Diario de Burgos”en: “¡Derechas! ¡Izquierdas! Qué importa el nombre? el contenido ideario es lo que hay que apreciar. Entre las derechas castellanas, adversarias del antiestatuto geográfico, las izquierdas catalanas, enemigas del Estado español, yo, republicano, prefiero, por más “liberales” a las “derechas” de Castilla.

Orra nola mintzatzen diran azkatasunaren aldeez españarrak. Euzkadi’ko integristak poz-tuko dira noski, au jakitean, “fuerista” amorratuak dira-ta.

“Euzkadi”tik.

ZELETA

ESTATUTOA TA IRAKASKINTZA

Nai duanak euskeraz eta nai duanak gazteleraz ikasi dezake

Estatutoak, gaur oker dau- den arazo asko bide oneratu ta zuzenduko ditu. Auetako bat irakaskintza gaya.

Estatutoa izaten degune- tik Bizkaya, Gipuzkoa ta Araba'ko irakaskintza arazoa Eusko Ikastola Nagusiaren eskutik ibiliko-da. Eta ez da gertatuko gaur gertatzen dan bezela euskaldun uts dan erri batean, inork gazteleraz ez dakin erri batean, irakaslea gazteleraz baizik ez dakiena izatea.

Eta onek garrantzi aundiya du; iñork uste baño aundiago agiyan.

Egin zugun kontu erri bat. Edozein. Erri orretako nexka- mutikoa euskeraz baizik ez dakite. Irakasleak berriz, euskeraz, "bai" edo "ez" itzak zer esan nai duten besterik ez. ¿Zer erakutsi bear die irakas- le arrek berak esaten duena ulertzen ez duten nexka-mutikuei?

Ariko da nai ba-du lepoko zañak lertu arte; baña al- perrik, ulertzen ez dutena ezin ikasi nexka-mutikoa. Irakasle onena izan ditek, ez du ezer irakatsiko. Nexka- mutiko argiyena izan ditek, ez du ezer ikasiko.

Estatutua ta irakaskintza Nai duanak euskeraz eta nai duanak gazteleraz ikasi dezake

ESTATUTUA, gaur oker daukan a-
razo asko bide oneratu ta zuzen-
duko ditu. Auetako bat irakaskintza
gaya.

Estatutoa izaten degune-
tik Bizkaya, Gipuzkoa ta Araba'ko
irakaskintza arazoa Eusko Ikastola
Nagusiaren eskutik ibiliko-da. Eta ez
da gertatuko gaur gertatzen dan
bezelako euskaldun uts dan erri ba-
tean, inork gazteleraz ez dakin erri
batean, irakaslea gazteleraz baizik
ez dakiena izatea.

Eta onek garrantzi aundiya du;
iñork uste baño aundiago agiyan.

Egin zugun kontu erri bat. Edo-
zein. Erri orretako nexka-mutikoa
euskeraz baizik ez dakite. Iraka-
sleak berriz, euskeraz, "bai" edo "ez"
itzak zer esan nai duten besterik
ez. ¿Zer erakutsi bear die irakas-
le arrek berak esaten duena ulertzen
ez duten nexka-mutikuei?

ESTATUTUA, gaur oker daukan a-
razo asko bide oneratu ta zuzen-
duko ditu. Auetako bat irakaskintza
gaya.

Estatutoa izaten degune-
tik Bizkaya, Gipuzkoa ta Araba'ko
irakaskintza arazoa Eusko Ikastola
Nagusiaren eskutik ibiliko-da. Eta ez
da gertatuko gaur gertatzen dan
bezelako euskaldun uts dan erri ba-
tean, inork gazteleraz ez dakin erri
batean, irakaslea gazteleraz baizik
ez dakiena izatea.

Eta onek garrantzi aundiya du;
iñork uste baño aundiago agiyan.

Egin zugun kontu erri bat. Edo-
zein. Erri orretako nexka-mutikoa
euskeraz baizik ez dakite. Iraka-
sleak berriz, euskeraz, "bai" edo "ez"
itzak zer esan nai duten besterik
ez. ¿Zer erakutsi bear die irakas-
le arrek berak esaten duena ulertzen
ez duten nexka-mutikuei?

¡Entzun!

EUSKAL ARRAKIDAREN AGI-
ZAKETAK IRAKASKINTZA
NAGUARI AL BERTU
ALBAYARDIEN ALBAYARDI
JEN BERTUEN BERTUEN
JEN BERTUEN BERTUEN
JEN BERTUEN BERTUEN
JEN BERTUEN BERTUEN
JEN BERTUEN BERTUEN

estatua dudan irakaskintza. Eus-
kaldunak, berriz, euskeraz, "bai"
edo "ez" itzak zer esan nai duten
besterik ez. ¿Zer erakutsi bear die
irakasle arrek berak esaten duena
ulertzen ez duten nexka-mutikuei?

Eta onek garrantzi aundiya du;
iñork uste baño aundiago agiyan.

Egin zugun kontu erri bat. Edo-
zein. Erri orretako nexka-mutikoa
euskeraz baizik ez dakite. Iraka-
sleak berriz, euskeraz, "bai" edo "ez"
itzak zer esan nai duten besterik
ez. ¿Zer erakutsi bear die irakas-
le arrek berak esaten duena ulertzen
ez duten nexka-mutikuei?

estatua dudan irakaskintza. Eus-
kaldunak, berriz, euskeraz, "bai"
edo "ez" itzak zer esan nai duten
besterik ez. ¿Zer erakutsi bear die
irakasle arrek berak esaten duena
ulertzen ez duten nexka-mutikuei?

Eta onek garrantzi aundiya du;
iñork uste baño aundiago agiyan.

Egin zugun kontu erri bat. Edo-
zein. Erri orretako nexka-mutikoa
euskeraz baizik ez dakite. Iraka-
sleak berriz, euskeraz, "bai" edo "ez"
itzak zer esan nai duten besterik
ez. ¿Zer erakutsi bear die irakas-
le arrek berak esaten duena ulertzen
ez duten nexka-mutikuei?

ARCA

Eta au gure erri askotan gertatzen da. Tamalgarria be- netan. Gero, euskaldunok ez- jakiañak garella esaten dute. Bai berriz ere eusko irakasleak Euskalerritik at bidali ta gure izkuntza ez dakiten irakas- leak bialtzen badizkigute.

Baño Estatutoa izaten degu- nean ez gera eusko umeatzaz, euskaldunentzaz bakarrik oroituko. Urrutietatik gu- regana etorri ta gure artean bizibidea arkitu dutenen se- meak ere ajola aundia ematen digute. Ez genuke gizonki jo- katuko atzeritarren aur oyeke kale gorrian utzita. Oyek ere izango lituzkete beren ikaste- txiak. Eta orretan bi irakasle motak (euskaldun utsentzat eta erderaz dakitenentzat) izango giñukelako aurren gurasoak berai egokiena de- ritzayen ikastetxeak autuko lituzkete beren seme-alaben- tzat.

Euskaldun utsak, ba, er- deraz ikasiko lukete ta ika- si bitartean, irakaslea beste irakasgayak irakasten ez li- tzake alperrik ariko, euskeraz irakatsiko lituke-ta.

Erdaldun guztik berriz (erderaz dakitenak esan nai degu) ala nai izan ezkeru euskeraz ikasteko era izango lukete ta beren ikaskizunak agurogo egingo lituzkete.

1885eko abenduak 24

ESCUALDUN GAZETA.

VOL. I LOS ANGELES, ETAN EGUNA URTAHAILAREN 10^{to}, 1886 No. 3

1. zenbakia, 2. orr.

APACHE INDIO HORIEK

"Hombeste urthe hotan Apache indio horiek [Arizonakoak] harritceko da sombat malur eta crima eguiten du-

ten eta hala ere governuyak estu deusik eguiten. Indiuiek nehor harrapatcen dutelarik estute beste nacionek besala hiltcen. Indiuiek harrapatuta buruko larruya kensen dute bisik direlarik eta emastekiak


igual tratatcen diuste berek nahi dutena eguin onduan. Batzuetan buruco larruya kenduta arbolere estakuturik usten tuste. Haur tipiak berri, sangotic har eta lurrari yoka hilsen tuste."

ARGIA

ASTEROKOA

1924ko azaroak 2

185 zenbakia



REAL SOCIEDAD- OSASUNA. 3-0

Jende asko bildu zan igandearean Atotxan donostiar eta naparren ostiketaldia ikusteko.

Torre jauna bizkaitar epaileak txistulari zutela, bitakoak gogatsu asi ziran jokatzene: bañan laister erakutsi zuten donostiarrak, iruñarrak bañan askoz geiago zirela. Bost minutu bañan len Urbina'k bikain ta garbi lenbiziko gurena (goal) sartu zuen. Txalo ugari ta sutsuak entzun zituan Urbina'k. Nire ustez txalo oyen erdiak Yurrita'k irabaziak ziran pelota ain egoki aurreratu zualako.

Ordu laurden igaro ondoren, donostiarrak lazotasun

aundia izan zuten. Nagiz edo azpértuta zeudela ziruditen, eta ez dakit zer gertatu zitzaien. Aldi artan Iruñarrak gogortu ziran eta donostiarrak menperaturik zeudela ekin zioten ordu laurden batian: bañan alaz ere pelotarik atean sartu ezin, eskerrak Eizagirre atezai bikañari ta Galdos jokalaria lasai ta artetsuari. Gañera, Osasuna'tarrak ez dute aurrelari eraginkorrik: pelota aurreratzen badakite, atera botatzen ez ordea. Gurrutxarrik une batian lasaitasun ta zurtasun apur bat izan balu, etziran utsik geldituko, pelotari aurrerantz bultzadaxo bat emanaz bakarrik sartua zeukan da.

Donostiarrak bizkortu ziran berriz eta Juantegi'k berak bakarrik besten tartetik pelota eramanez, zuzen sartu zuen ate-barrenera. Poztu ziran donostiarrak, ainbanatzeko (em-

patatzeko) arrixkoa aldendu zutelako. Beriala bukatu zen lenengo ekinaldia.

Bigarren ekinaldian ez genuen gauza aundirik ikusi. Ez batzuek eta ez besteak etzizuten erakutsi jolasketaren edertasun gutxienik ere. ¡Ura bai zala naste-borraste!

Alakoren batean donostiar aurrelariak, lengoak ziralaa adierazteko edo, ongi elkarturik aurreratu zuten pelota eta Urbina'k sartu zuan berriz ere. Iru donostiarrak.

Ondoren, naparraia odola berotu zitzaien noski, ta... kirol bidea utzirik, borroka-bidea artu zuten. Pelota jotzeko erarik ez danean, ez da ostikadarik bota bear. Ori ez da kirol-zaleai dagokien bidea. Kirol-zale zintzoak garbi ta txukun jokaturik aurreratzen dute.

Donostiar batzuei ere zerbait esan bearra badegu. Oyu

ta deiadar egiñaz jokalariaik ez dute ezer irabazten, ikusleak gutxiago. Iskanbila-zalén kontra izan gera beti; es jarraitu bada beren ikasbideari. Ongi da jokalariai txaloz ta aupaz adorogarriak ematea; zalaparta eta iskanbilez ez ordea. Iparraldeko bazkide-taldeak itz hauek beretzat artzen baditu ongi dijoaz.

Eta jokalarietaz, zer? Donostiarraren artean Yurrita lenengo: ekinaldi guzian gogoz ta kementsu jokatu zuen: berak bezin gogatsu beteak ere joaktu izan bazuten, 3'ren tokian 6 goak jarriko ziran noski. Urbinak ere gogor egin zuan. Galatas aldizka, sarritan utsak egiñik. Eizagirre ta Galdos oso ederki: bi auek Yurritakin batean goren jartzen ditugau.

Naparren artean, abaskal trebe ta bulartsua da, Onen ondoren Lusarreta, mugiro ta Goñi'k poliki jokatu zuten. Urkizu jokalaria ausarti ta trebea da, bañan astuntxo azaltzen da.

Torre txistulariak noiz txistu egin badaki, alde bitakoai berdin begiratuaz.

J. AUÉRA

The collage consists of numerous small advertisements. At the top left is 'Jolasak' (Games) with a drawing of a person. Below it are 'ZURGINTZA-OLA' (Surgery School) and 'LOIDI...LAGUNAK' (Loidi's helpers). In the center is 'JUAN MOKOROA' (Juan Mokoroa) with a drawing of a man. To the right is 'La Urbana' and 'DONOSTIA'. Below these are 'Banco Quiquicoano', 'Aldamar 6 kalak', 'Lidardi - Efemolaxa', 'AOKO MIRAK KENDU!', 'Clavero', 'Ingi margoztuak', 'LURIZOLA TA AIZA', 'Askatu saldu nai badezu', 'asferoko ARGIA-N', 'ERREGE INSTAU ZARA', 'ZUGATZ LANDAREAK', and 'G. Gerber's'. There are also smaller ads for 'Donostia', 'Nikasio Urizar', and 'Gaur'.

ARGIA ASTEROKOA

1923ko jorrrailak 15

104. zenbakia, Igandea


EGUZKIAREN INDARRA

NEW YORK.- Diotenez, erri onetan saiaketa ikuspe-
ra bat egin dute, eguzkiaren

beroarekin su-gurdi edo loko-
motora bat ibiltzen jarri dute.
Aspaldian orren atzetik da-
biltz, ia eun urte dirala jana-
ria eguzkitan berotzea lortu
zuten. Geroztik makina txiki

batzuek ibiliazi dituzte.
Gaur bai dakite petroleoa
hogei urte buru aituko dala,
ta arrikatzak berreun edo iru-
reun urte baño gehiago irau-
go ez duala.

Ta arian-arian zerbait lortuko dute. Zenbait lore urte guztian bizi ditezten ikusi oitugun kristalekin estaltzen dituzte. Ta baten tokian ba-



ratz zaiek bi edo iru kristal gañezka jarriko balituzkete, landareak egosi egingo omen lirake.



1924ko azaroak 23



BESTE ERRIETAKO BERRIAK

Errusi'tar boltxebiki, komunista, sobiets edo danadalako, ondamendia besterik ez dakarren oye, mundu guzia azpiratu nai dute. Laterri edo nazio batzuetan sartu dira, eta beste askotan ere sartzeko dabilzkiten lanak ez dira txantxetakoak. Txina'ko gobernu berria boltxebikiaren aldekoa omen da. Grezia'n bildurrez daude, ango boltxebitarrek matxinada sortzeko agindua Rusia'tik izan dutela-ta Prantzia'ko Herriot'en Gobernuak ateak zabal-zabalik utzi dizkiete eta emendik aurrera boltxebitar guziak Prantzia'n dute erara ibiltzeko eragozpen txikiarik ere ez dute izan-

go; eta berak, errusitarrek, esan dutenez, Prantziak eman dien askatasunaz Italia'n sartzeko erreztasun aundia izango omen dute, aita Santu ta Batikanoaren kontra beren alegin guziak zuzentzeko, auek dirala komunisten etsairik aundienak-eta.

Beraz, errusitar boltxebiki oye, beren zabalkundea aurrera daramate; eta eragozpideak gogor eta garaiz artzen eypadira, guziok gaizki, oyen asmorik sendoenak Eleiza ta erlijio guziak ondatzea da-ta.

ERRUSIA ALDIAN IRLANDARRAK

ERRUSIA ALDIAN

Naste ikaragarria dago, is-tilu gorria. Erreboluzioa sortu zanean errege-erregiñak il zituzten. ordurarteko bizimodua txarra bazan oraingoa ez da hobeia. Lenine ta Trotzky izenak onezkero entzungo zenituan, irakurlea. Oiek ziran orduko erreboluziogile buruak. Gaur ere buru dira. Amaika txerrikeri egin dituzte bere komunismoa dala-ta. Aiek ankaz-gora-zaleak eta aiek nagusi dirala berak botatzera dijuazen guztiak erreboluziogileak dira berriz, gauzak onela izaki. Sortu ziran alako ankazpera-zaleak, Cronstad ta Minsk errietan gogor ekin ziotenak. Baño alperrikako lana... gogorrena alkate. Errusi aldi ortan demoniñua azkatuta ibili bear du.



IRLANDARRAK

Irlandarrak eta ingelesak alkar arteko gorroto bizia darabillkite. Irlandarrak bere etxean nagusi izatea ezin lorturik al bezalako indarrakin inglesen aurka dabilta. Egutero tiroz ildakoak badi-ra. Irlandarrak atzera egiteko asmorik ez zaiete bururatu. Dublin'eko (Irlanda'ko erri nagosia) etxeormaetan jarri-

tako paperetan erabaki ori azaldu dute. Naiz kartzela dala, naiz urka, naiz eta arrapatutako irlandarrak polizoakoak gordetzen aurretik eraman, dana-dala, irlandarrak ez omen dira geldituko beren aldizkako burruketan. Northeliffe jaunak, ingelesa bera, indarrezko bide oieta-tik ezin litezkeala irlandarrak menperatu, esan du. Mundu guztiak orrelako nagsikeriak begi txarrez ikusten duala ta atzerrian orrelako gauzak izan diranean berbera gaizkitzatz eman izan dutela. Alkar aditu bear litezkeala dio. Bourne kardenalak ere Ingalaterra'ko nagsusiei gudariak ateratzeko eskatu die, pakea egingo bada. 68 mila ba omen dira gudari edo soldadu ta poliziakoan artean.

1



1931ko urriko 18a

BARTOLO TA MARI IÑASI'REN PASADIZUAK

ASTE ONTAN TXIRRITA'K JARRIYAK

- Jaungikuak egun on
dizuela, Ma'Iñasi,
¿zer zabilta zu emen

makilla ta guzi?
- Ardi kontu, Bartolo,
nai banazu ikusi,

beste ofizioyori
ez nuan ikusi.

2
-Ez aldezu artu biar,
Ma'Iñasi, gizonik?
bizi modu obia
jarriko dizut nik.
-Ez daukat dirurik
eta ondasunik,
ez det uste, Bartolo,
zuk naiko nazunik.

3
-Zu egonagatikan
arrote ta pobre
zenbait aberets baño
neretzako obe;
atoz, zauden bezela,
xentimorik gabe
ta zu egingo zera
nere gauzen jabe.

4
-Ni izan agatikan
etxe pobrekua,
badakizu naizela
biyotz noblekua,
beste batzuek baño
konduta obekua,
zirri bat iñork
egin gabekua.

5
Berrogeita biña urte
zaizkigu kunplitu,
iya bada garaya
nai bada muiitu,
berel berelakuan
berel berelakuan
etzera kupitu,
Jainkuak bestek eztu
nik ainbat sufritu.

6
Arreba monja juantzait,
jau da desgraziya!
fameliyan dadukat
indar eskasiya,
orañ ipintzen dizut
komenientziya
zuria izateko
nik dedan guziya.

7
Iru bei ta ogei ollo,
zakurra ta astua,
lau katu eta bi auntz,
izer bizi poztua!
morroi bat artuko det
pulamentuzkua,
ez dago sayatzeko
paraje gaxtua.

8
Etxia neria det,
baditut bi txerri,
baita mendiyan ere
berrogei bat ardi,
pobria izan arren
azaltzen naiz argi,
zor artzekuak kito,
kontuetan garbi.

9
Bi azipa bizi giñan,
aita eta ama,
bestiak gobernatzen
nik bakarrik lana,
ayentzat justu justu
sortzen nuen dana,
irabazi orduko
aurretikan jana.

10
Aste batian illak
aita eta ama
ta aizpa "reumak" artu
ura gure lana
izeba batek artu
zuan beregana,
zerbait biar zanian
beti neregana

11
Sokorritutzen nuen
onradamentian,
negar egiten zuen
begiyak betian,
orañ bi illabete
sartu zan lurpian
galanki sufrututa
amarbat urtian.

12
Ez bagera sayatzen
ez dago gauzonik,
ez dezu adituko
alperra naizenik
egifala guziya
egingo dizut nik
nere partetik ezta
galduko gizonik.

13
Bartolo arkitzen zan
estatu mobxian
iñor emakumerik
etzaukan etxian,
dudan ibilli gabe
denbora luzian
illabete baño len
esposatu zian.

14
Orra pasadizuak
guk adierazi,
sayatzen danak eztu
burlarik merezi;
orañ egin biagu
lengo penak utzi,
alkar istimatuaz
ondo ondo bizi.





1906ko apirilaren 6a

LANGILE NAHASIAK

Erran dautzuet, azkeneko aldian, zer gerthatu zaion Clémenceau ministroari iphar-aldeko langileekin; nola, Clémenceau ministro izan ala bertze bat, langile hoik berdin aitzinat joan gogo duten beren nahaskerietan. Beraz jaun horren espantuak sartutheak dire, eta ez zaiote gehiago han agertu.

Bada oraino langile hoitarik hainiz beren lanari lotu nahi ez direnak, eta han dabilza ez dituztela utzi behar bertzeak lanerat joaterat. Hortarik gataska izigarriek, lana utzia dutenen eta ez dutenen artean. Egun hautan, nola nahasi zenbeit jazarri baizaizko bere lanerat zoan bati, hunek bertzela ezin ihardokiz, tiro egin du eta hil nahasietarik bat. Batzuen eta bertzeen arteko makhurra ez da hortarik chuchendu; nehoiz baino gehiago bada orai, eskualde hartan, soldado andana handiaran beharra.

Ez dire, lehenago bezala, langileak beren nausien kontra bakharrik, baina langileak dire elgarrekin makhurtzen. Ikhusirik nola deputatu zozialistak jende cheheaz trufatzen diren, langile hainitzek



ez dute gehiago hoiene moneko nahi, jaun hoik manaten dutenaren arabera lana utziz eta lanari lotuz. Hemendik aitzinat, berek nahi dute beren buruen nausi, lana uzteko, berentzat hola hobe dutela ikhusten badute, eta ez jaunskila tchar batzuek hola manaten badiote.

Ba omen dire orai, Frantzia guzian, bortz ehun mila langile elgarrekin batasun bat egina dutenak, ez gehiago deputatu zozialisten eskumakil izaiteko. Ederki hori. Boz-emaille hoik guziak gutiango izanen dire zozialistentzat. Ez da dudarik emendatuko direla oraino; ezen arras zozoa behar da, orai arte gerthatuak ikhusirik, bethi aitzinat sinhesteko deputatu zozialist hoik langile gaizoen onaren ondotik dabilzala. Jaun hoiene gogo bakharra hauche da: deputatu-kargurat nolazpeit heltzea, eta hortako sinhet araztea langileen adiskideak direla. Bai adiskide girgisak, on baino kalte gehiago egiten dioten adiskideak! Aski da ikhustea eia, beren lana utziz eta nahaskeriari lotuz, langileak irabazten ala galtzen duten gehienik. Hainitzak ohartuak dire hobe dutela berentzat, holako adiskideeri ez jarraitkitzea.

Problema 1000 - No. 1 Leu 20.000.000 - 10.000.000 Cursul 10.000.000

ESKUALDUN ONA

1905eko maiatzaren 19a

EZ ASKI GORRI

Eskual-herrian orai ditugun jaun deputatuak ez omen ditugu aski gorri. Hauk baino gorriagoak baginitu, hobe-ki omen ginezake. Zer nahi laguntza eta fagore ardiets omen ginezake, hauien orde baginitu deputatu gorri huts, Berdoly zenator orok daki-gunaren irudiko batzu: lege tzar egin eta egiteko guzien alde boza bi eskuez eman lezaketen gizonak; baina gero, gero, gerthutzen dena gertha; Frantzia dohakabea errekek behera joanen bada ere, an-hartean framazon buruzagie-tarik, zuzen edo makhur, asko eta asko diru pozi, bertzei khenduz (ez berenetik, ez!); asko bide lan, prozeberbal hauste, 28 egun kentze, eta holako.

Holako zurruburru batzu-tan truk beren eta bertzen kontzientzia sal; eta debruak daramatzala oro, ferafutro: erlisione, familia girichtino, bake on, haurren arima eta demuntren guziak oro. Laguntza pegeseria pozi batzu ea baditzkegunetz, eta gaine-ratikoak oro, ez balire bezala.

Hortakotz, orai ditugun de-putatu gorriek ez omen dute indarrrik aski. Lehen, churiak ziren churieg, laguntzen ardiesteko. Oraiko gorri hauta-rik behar ginuen orduan, ez dakit zer!... bazen espantu.

Eta orai? Orai hauk ez on

gehiago; higatu naski. Ez aski gorri. Hauk baino gorriagoak behar izendatu sarrihago nahi badugu gobernamen-dutik laguntzarik ardietsi.

Ez da bertze ikhustekorik deus: LAGUNTZAK. Laguntza emaille edo hitzemaille hura izanik ere den eta ditaken gi-zonik galduena, galgarriena, ustelena, aspaldiko ministro buruzagiak ditugun beza-lakoa, hari bazizik ez behar behatu. Harri jarraiki, hura sinhetsi, bakharrik hura. Ez da oraiko. Preseski raiko hauk churien ordain jarri zirenean, musika ber-bera zen.

Zenbaitaldiz erran ere ba guk orduan: hauien ondotik gorriagoak jinen zirela, elhe eder berekin zilhoan barnago gure sartzaile.

Irri egitern zioten orduan gure erranari. Ba sarthu ere baitzaizte geroztik irriak, eta oraino barnago sarthuko, itchura guzien arabera.

Merezi zutena baizik ez du-tela erraitea ahal ginuke, be-rak balire bakharrik saltsaren erdian. Saltsa berean baikara ordean gu ere; ba eta behera sarthuak, lephoraino.

Jalitzekotz, bermatu behar, eta elgar lagundu azakarki. Nola hori? Beha etsaiari. Ha-rek tzarreko egiten duena, egin guk oneko alderat. Beha nola tokitan ahal duketen guzietan, hala nola Donibane-Garazin, Ustaritzen, Donapa-leon eta Laburdin baino ge-

hiago Bachenabarren, herririk ttipienetan bardin "comités republicains" izendaturiko bilkhura batzu egiten dai-tzuten. - Zerteko? - Oh! se-gur, heldu den urtheko bozei buruz indar biltzeko. - Zer indar? Morrochko Harriague, Legrand, Pradet eta briga-da guziaren debrueta harat igortzeko. Hoiene orde gorri gorriago batzuen ezartzeko. Chede hori ez dute oraino garbiki agertzen; baina hor-tara doazi.

Framazonen egitate guziak oro begiak hetsirik onhesten ez dituztenak oro erhautsi nahi lituzkete.

Hortako dabilta etchez etche, herriz herri, jaun errien-tak aitzineko, jendea bildu nahiz, beren "comités" tzar hoitarat.



Hori oharturik dire hitan uste gabez ja sarthuak zirenetarik leherra jali, usain tzarra zuela saltsak ezaguturik. Bertze frango jaliko, beren onetan, chede onik balinbadute. Guk argitu eskasean, behinik behin, ez dira egonen.

Hain chuchen, solas hau he-

men deramagularik zathorko Garazitik berria, bilkhura tzarreetarat jendea bildu nahiz dabiltzanak bezala, badirela oneko alderat ari direnak ere. Ba eta lege tzarren kontra pezione baten sinarazteko beren buruen agertzeari beldur ez ahalge ez diren gizonak ba-

direla holetan Bachenabarren. Biba hek! Ordu zen egiazki.

Eta Euskal-herri guzian, Frantzia guzian horrela etsaiari jazartzeko zainik aski, kopetarik aski ukhanen duten gizon andana handi bat noiz ikhusiko dugu?

Bonbardaketak



Bilbao'n 1937'go joñaila 28gna. Eguaztena

GERNIKA, EUZKOTA'AREN URI MAITEA BIRINDU NAI IZAN DABE ZEARO

GOÑOTOA!

Bizkaya'ko beste uri eder bat ezereztuta ta birrinduta utzi dauskue paxistak. Atzokoan Tabira zan goizean goiz unetxo baten zuzituta laga ebena; arañegun oster, Gernika, euzkotarron uri kutun, leku maitagarriena triskauta idoro dogu.

Ez kalerik, ez etxerik, osorik laga dabe paxisten egazkin madarikatueto bonba edentsuak. Bideak apurtuta dagoz, eta keia, autsa eta negarra baino ez dogu aurkitu, ondament di ondorenean, Gernika'ra arin baño ariñago jo dogunean.

Euzkadi'ganako gorrotoa egundo ez dabe ezkutatu ez gorde, eta oraingoan euren indar osoaz agertu izan dauskue goroto ori.

Eriotzea euzko-erri osoaz jaubetuteko alegiñetan ari dira, baño euzko-erria lena da orain ere, ez da aldatu, eta egingo ere ez.

LAU ORDUKO SUAGAKETA

Etxe gitxi gelditu dira ukitu barik Gernika'n. Alde geienetan jausi ziran bonbak, eta etxe ta eleiza, ibiltoki eta gexoetxeak zuzituta gelditu dira geyenak.

Udaletxea zana goi ta be, lorriña ta autsa baño ez dogu orain, eta leku itzaletakoa izan-go dabe gernikar askok berau.

Eleizak ere su ta gar agiri dira keia ta odola besterik ez dabela.

Lertzeko bonba pillak jaurkitzen ekin eutsen egazkiñak, gero, su-emalleak ere ugari bota zituen, eta uria ezereztatuta laga eben zearo.



Alde batetik bestera Gernika illotz mutuldua dirudi.

Biaramonean ere, ketan egon dira etxe asko, osoro erre arte, zeatz birrindu arte gizonen gaiztakeria agertzen bai'legozan.

GUDOINETATIK URUTI

Arratsaldeko lau ta erdiak aldean agertu zan lenengo egazkiña Gernika gain, eta kanpaiak jo zituen. Orduan, jendeak gordelekuetarantz egin eban.

Egin bakar orrek bonba batzuk bota ondoren alde egin eban. Baña ba-ebazan lagunak be bere atzean.

Berealakoan, beste bat agertu zan, eta hurrengo beste bat, eta geyago ta geyago banaka. Sugaketa eta eizeko egazkiñok hoge bat bildu ziran eta jo ta ke, bonbak bonba botaten asi ziran.

Gernika osoan, alde guztietan bonba eta suagak besterik eziran izan iru lau orduan. Bazter guztiak sutan eta jausten asi ziran berealakoan.

Etxe eta eleizak garretan ziran. Jon Deuna eleizaren goirik ezan agiri, su ta ke artean.

Uriaren erdi alde osoa eta inguruak sutzar egiñik laga zituen.

Illuntzera arte, ordea, egazkiñak eurenari ekin eutsen. Lau ordu luzetan botatako suagak zenbat izan diran ez dogu jakin, baña uri ezereztuak argi asko agertuko dau munduaren aurre gudoinetatik urruti dagon uri edegi bateri egindako eraso zitala.

ONDORENAK

Gau leanean, su artean argi egiten eban erri aretako etxeak. Agindariak beingoan asi ziran bear bearreko lanetan: Jaurilaritzako burukide batzuk antxe ikusi genduzan.

ILAK

Lantxo au egiten diardugun unean, ilak izan diren notifiñen erreskadea osotuteko daukela esan dauskue Erri-Zaiketa'n.

Ez dakigu ziur zenbatgiño izan diran ilak uste-uste bako suagaketa orretan. Erreskada luze samarra izango dala deritxagu, edozetara be; alabaña, erria ikusita bakarrik emoten daben beste ez al da izango.

Erreskada orixe artu baizen laster argitalduko dogu, baña.

Paxisten egitada deunga onek bein barriro mindu gaitu barru-barruan. Ainbat baserri ta uri birrindu ondorean, erri zoragarria ondatu dauskue, euzko azkatasun ikurra dauan lekua, euzkotarron Areitz donea!

ZAURITUAK

Erri Zaiketan zaurituen erreskada bat emon dauskue. Baña, zaurituok, Basurto'ko gexotegira jaso dituenak bakarrik dira:

Jayo'tar Joseba Iñaki, 46 urte.

Irusta Urienagoena'tar Domeka, 86.

Arribas Garcia'tar Kepa, 49.

X. X., ogetabi urte inguruko gizonetzko bat.

Ugalde'tar Ilari, 19.

Jimeno Tejero'tar Pilipa, 45.

Garitaonandia'tar Erromalda, 15.



1937ko maiatzaren 7^{an}, ortziralea

GUERNICA

Eskualdun guziek maite dute Guernica eta Guernicako arbola. Guziek bihotzminekin jakin dute makur gaitzake gin dituela hor ger-

lak, Molaren soldadoek hartu aitzinean.


Bilbaoko berriek zioten Aleman aireplanek izigarriki tirokatu dutela.

Churiek aldiz ezetz, gezurra diotela, hor igorrien beren lana dela. Irunen bezala Eiba-

rren bezala, orotan bezala.

Bainan han ziren jendeek salatzen daukate eta Aguirre, Euzkadiko buruzagiak, jakin arazten dauku, hiru orenez iraganik, aleman aireplanek aldizkatuz beren bombak aurthiki dituztela hirien gainerat. Merkatu eguna hain chuchen zembat jende ez da garbitu hor?

Ni nago Alemanek bethi



1944ko maiatzaren 5^a, ortziralea

IDEA BERAK!

Guk choko huntan, bethi idea berak: kaskoan dugu Angles-Amerikanoek gituztela libratuko eta idea hori ez dugu utziko kaskotik. Badakigu jiten direlarik, denak cheatuko dituztela: etcheak, elizak, ospitaleak, jendeak, chahar eta gazte. Bardin munta du guk idea berak... errazu? Ez dea gizona bethi idea berekin behar? Emaztea kambiatzen da, bainan ez gizona. Guk idea berak.



Bombak ari dira hurbiltzen: Parise, Bordele, miarritze eta gero? Noiz othe Donianeko merkatiaren aldi? Gure etche-gno hoi aurtikitzen balute, edo hiltzen gure behor gazte hoi edo gure tropa joalten, orduan kambia ginitazke. Behar baa! Guk idea berak!

Giraud jenerala gizon gaitza zaukaten askok! Hoi duk hoi gizona! On va voir ce qu'on va voir! Horrek ezarriko tik gauzak hatzean Afrikan, bestenez ete Amerikanoek biziki berria die. Eta Amerikanoak gaitzak

tiuk, comme chacun sait...

Orai aldiz Giraud lurrean!
Giraud petzero! Giraud
deuxième classe, kaporalaren
peko.

Bainan gu bethi idea beretan...

Le maquis eta la résistance
horietan tiuk gure gizonak.

Azkarki muntatiak dira, mi-
trailleta zer nahi badie et jen-
den hiltzen usatiak.

Orai jakina dugu, delako
makistarrak eta resistanzia-
rrak komunizten gizonak di-
rela, eta odol hotzean hiltzen
dituztela haurrak, emazteak,

nagusiak, apezak eta idea be-
reko ez diren guziak. Hoi ba-
dakigu eta beste asko gauza,
bainan Amerikanoer lothuak
gira eta ez ditugu utziko.

Guk idea berak!

Hots! Gu bethi... sto berak!

LAURENDI



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia / Edición	1.a, 2008ko abendua / 1. ^a , diciembre de 2008
Ale kopurua / Tirada	1.500 ale / 1.500 ejemplares
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco Kultura Saila / Departamento de Cultura
Diseinua eta azala	Antton Olariaga
Maketazioa	Junkal Motxaile
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet	www.euskadi.net
Inprimaketa / Imprime	Gráficas Santamaría, S.A.
ISBN	978-84-457-2844-4
Lege gordailua / Depósito legal	VI-575/08

Euskal Herriko prentsa

XVIII. mendetik 1945era



EUSKARA
MINTZAGAI

3



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IKU, PIRLO, SAGUA
PUBLIKAZIO ERREKURSUAK
SERBIZIO ZENTRAL DE PUBLICACIONES
GOBIERNO VASCO



Udako Euskal Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Ministerio de Cultura y Turismo
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Ministerio de Política Lingüística



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco